

---

Euskaltzaindiaren  
Oroitidazkia  
1999



Memoria  
1999


Real Academia de la Lengua Vasca  
Euskaltzaindia



Mémoire  
1999

Académie de la Langue Basque  
Euskaltzaindia

---











Euskaltzaindiaren  
Oroitidazkia

1999

Bilbo, 2000

Testu-idazketa: J.L. Lizundia, P. Telleria, I. Rekalde  
Testu gainbegiratzea: Patxi Goenaga

© Euskaltzaindia  
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo  
E-mail / E. posta: [info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net)  
Web gunea: [www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.  
Cuevas de Ekain, 3, 1º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.  
Avda. Ribera de Erandio, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-3130-00

# AURKIBIDEA

---

<b>Aurkezpena</b> .....	7
<b>I. Akademia jarduerak</b> .....	13
I.1. Erabakiak .....	13
I.2. Ekitaldiak .....	19
I.3. Erakunde mailako harremanak .....	23
I.4. Aurkezpenak .....	25
I.5. Sariketak .....	27
I.6. Bestelakoak .....	31
<b>II. Sailak eta batzordeak</b> .....	33
Batzorde-lana, lan-metodologia, bilerak .....	35
II.1. <i>Iker</i> Saileko batzordeak .....	37
II.1.1. Hiztegi-gintza batzordea .....	37
II.1.1.1. <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> (OEH) .....	37
II.1.1.2. Hiztegi Batuko lantaldea .....	41
II.1.2. Gramatika batzordea .....	43
II.1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordea (Euskal Herriko Hizkuntz Atlas) ..	45
II.1.4. Onomastika batzordea .....	51
II.1.5. Literatura batzordea .....	55
II.1.5.1. Herri Literatura azpibatzerdea .....	55
II.1.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea .....	57
II.1.6. Batzorde suntsikorak .....	59
II.1.6.1. Euskara Batuko batzordea .....	59
II.2. <i>Jagon</i> Saileko Corpus eta Sustapen batzordeak .....	61
<b>III. Erakunde zerbitzuak</b> .....	67
III.1. Egoitza .....	69
III.2. Ordezkaritzak .....	71
III.2.1. Donostiakoa .....	71
III.2.2. Gasteizkoa .....	73
III.2.3. Iruñekoa .....	75
III.2.4. Baionakoa .....	77
III.3. Azkue Biblioteka .....	79

III.3.1. Azkue Biblioteka zerbitzua .....	79
III.3.2. Azkue Biblioteka batzordea .....	83
III.4. Argitalpenak .....	85
III.4.1. Argitalpen batzordea .....	85
III.4.2. Argitalpenen banaketa zerbitzua .....	89
<b>IV. Aurrekontuak .....</b>	<b>95</b>
IV.1. 1999ko balantzea .....	95
IV.2. Informatizatzea .....	99
<b>V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak .....</b>	<b>103</b>
V.1. EAeko eta Nafarroako Herri Aginteak eta Euskaltzaindia .....	105
V.2. Udalak .....	107
V.3. Euskal Herriko Unibertsitatea .....	109
<b>VI. Euskaltzaindiaren organigrama .....</b>	<b>327</b>
VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak .....	329
VI.2. Batzordeen zerrenda .....	331
VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama .....	335
VI.4. Bulegoen helbideak .....	339



## Aurkezpena

*Hona hemen, irakurle, azken aldiotan ohi dugun legez, Euskaltzaindiaren 1999. urteko Oroitidazkia. Akademiaren lana nondik norakoa izan den, zein izan diren lorpen nagusiak, nor izan diren lan horien egileak, etab. jasotzen da idazki honetan. Egindakoak eta gertatutakoak gogoratzeko eta gogorarazteko balio izaten dute oroitidazkiek. Horrela, Erakundearen lanari jarraituz, lan eta proiektu desberdinen artean hari bat badela erakutsi nahi da, urte batetik bestera jarraitzen duen hari bat. Baina liburu honek, gertatutakoak gogorarazteaz gainera, gogo-eta eragitea ere badu helburu: betebeharrak behar bezala bete diren jakiteko eta geroari buruz zer aldatu beharko litzatekeen asmatzen laguntzeko ere balio behar lukete orrialde hauek. Mugarri nagusiak gogoratu nahi dira, horrela, hurrengo urteetarako ere gauzak zuzentzeko balio izateko moduan.*

*Euskaltzaindiaren lana arlo desberdinetan sortuak dituen batzordeetan mamitzen da. Batzorde hauen lanean oinarriturik hartzen ditu gero Euskaltzaindiak bere erabakiak. Hain zuzen, batzorde-lan honi eskaini nahi izan dizkiogu Oroitidazki honen orrialderik gehienak. Izan ere, Euskaltzaindiaren zereginaz zerbait jakin nahi duenak, batzordeen ibilbidea ezagutzea nahitaezko du.*

*Hiztegi gintza izanik Akademiaren lanik behinenetakoa, lantegi honetan ari diren batzorde eta lantaldeak aipatzen dira lehenbizi: Orotariko Euskal Hiztegiaren XII. liburukiak argia ikusi du, urtero liburuki bat argitaratzeko aspaldi hartutako konpromisoari eutsiz. Hiztegi Batuko lantaldeak ere zehatz eta seriozki jardun du lanean. Horri esker Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua izango denaren hogeit mila hitzeko lehen emanaldia burutzear dago.*

*Gramatika batzordearen eskutik etorri da urtearen amaieran EGLU V liburukia. Hau ere zenbait urtez egindako lan isilaren emaitza dugu.*

*Euskal Herriko Hizkuntz Atlasean ari den batzordea ere aurreko urteetan bildutako materialak lantzen ari da, laster argia ikusten hasiko direlakoan hauek ere. Erakusgarri gisa Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia prestatu dute eta kaleratu.*

*Euskararen normalkuntzari begira bada beste batzorde bat oso garrantzitsua: Onomastika batzordea. Lan handia egin du batzorde honek herri eta pertsona izenak aztertzen eta erakundeetatik etorri ohi diren galderei erantzuten.*

*Batzorde hauen guztien eta gainerakoen (Literatura, Euskara Batua,...) lanen berri ematen da hurrengo orrialdeetan.*

*Aipatu beharrekoa da, bestalde, aurtan Jagon sailean bi azpisail edo eratzea erabaki duela Euskaltzaindiak, bata euskararen erabilera zuzena begiratuko duena eta bestea euskararen sustapenez arituko dena.*

*Mendeurren ospakizunak ere egin ditu Euskaltzaindiak: Aramaion Euskal Jaien mendeurrena, Etxarri Aranatzaren Huitziren Gramática Bascongadarena eta A. Irigarai idazlearena eta Mañarian Errose Buztintza idazlearena. Ekitaldi hauek baliatzen ditu Akademiak jendaurrean agertzeko. Baionan egin ditu, berriz, XI. Barne Jardunaldiak. Horrelako jardunaldiak aldizka egiten ditu Euskaltzaindiak barne arazoak aztertzeko.*

*1999. urtean gertaturikoen artean bada beste aipagarri-rik ere: gauzatu da aurreko urtean onartutako informatizatzeko plana. Egoitzako zerbitzuak, ordezkarietzakoak, etab. elkarri loturik ageri zaizkigu hemendik aurrera. Batzordeetako lana ere errazago bideratuko da azpiegitura berri honi esker. Euskaltzaindiak berak "leiho" bat izango du irekia Internet deitzen den amaraun handi horretan. Aro berri baten aurrean gaude. Gure gaurko idazle handienetako batek euskara trikuarekin konparatu zuen. Nazio ñimiño baten hizkuntza da gurea, mapan ageri ere ez den herri batena, Gorteko lorategirik ez gobernu jauregietako marmolik zapaldu ez duena. Trikua bere txokoan luzaro lo egon ondoren iratzarri zaigu noizbait. Euskaltzaindiak ere, hizkuntza horretaz arduratzen denez, nahitaezkoztat jo du trikuaren iratzartzean parte izatea. Erronka nagusietako bat, dudarik gabe, teknologia informatikoaz baliatzea da. Orain arte eskuetan genituen baliabide teknologikoak zaharkituak eta baliogabetuak gelditu direnez, behar beharrezko zen Euskaltzaindiarentzat ere komunikazioen eta informazioaren esparruetan gertatzen ari diren aurrerapenak eskuratzen saiatzea eta horietaz baliatzea. Hori ere euskararen onerako izango da. Herri aginteengandik laguntza eskergaitza izan du Euskaltzaindiak horretarako eta gure erakunde xahar antzeko baina bizi-bizi jarraitzeko erabakia hartua duen honek ez du trena pasatzen utzi nahi izan.*

*Liburuki honetan jasotzen da, bestalde, Euskaltzaindiaren organigrama, honek erakusten baitu Euskaltzaindiak nola dauzkan banatuak bere indarrak. Hain zuzen, aipatu beharra da aurtan Euskaltzaindiak euskaltzain berri hautatu duela Andres Iñigo jauna joan den urtean zendutako Krutwig jaunaren hutsartea betetzeko. Euskaltzaindia eraberrituz doa.*

*Eta, jakina, Euskaltzaindiaren diru kontuak ere jasotzen dira Oroitidazki honetan. Herri aginteek esleitutako diruez bizi da batez ere Euskaltzaindia. Eusko Jaurlaritzaren, Nafarroako Gobernuaren eta hiru foru diputazioen ekarriez gainera Espainiako Hezkuntza eta Kultura Ministerioarena aipatu behar dira. Udalek ere laguntzen dute eta denei esker bideratzen ahal da Euskaltzaindiaren lana. Azpimarratzekoa da Eusko Jaurlaritzak Akademiaren informatizatzeko emandako dirulaguntza. Hori gabe, Euskaltzaindiak maileguak eskatzeari ekin beharko zion. Denei eskerrak eman nahi dizkie Euskaltzaindiak.*

*Gizartea dugu sustatzaile eta laguntzaile, eta lan honen bidez, urtean zehar gauzatutako berri eman nahi zaio gizarte horri. Horrela, berak ere gogoeta egin dezake bere hizkuntza*

*akademiaz. Gizarte honetan, ordea, euskararen ondoan badira beste bi hizkuntza. Gainera, kide askok ez dute euskararen behar adinako ezagutzarik. Horregatik, joan den urtetik hasita, ahalegin berezia egin nahi izan du Euskaltzaindiak Oroitidazki hau euskaraz ez ezik gaztelaniaz eta frantsesez ere kaleratzeko: Akademiaren hizkuntza euskara da, baina geure buruaren berri ematen hasita, egoki ikusi dugu gure lanaren berri euskararen lurraldean erabiliak diren beste bi hizkuntzetan ere ematea.*

*Irakurleak esku artean duen Oroitidazki honek balioko ahal du 1999. urtean Euskaltzaindiak egindako lan isil baina ziurra gogoratzeko, lan hori gauzatzeko bideak jarri dituztenei zor zaien kontuemate gisa.*

Patxi Goenaga,  
idazkaria



# **I. Akademia jarduerak**

**I. 1. Erabakiak**

**I. 2. Ekitaldiak**

**I. 3. Erakunde mailako harremanak**

**I. 4. Aurkezpenak**

**I. 5. Sariketak**

**I. 6. Bestelakoak**



## I. AKADEMIA JARDUERAK

### I.1. ERABAKIAK

#### *Hizkuntza erabakiak*

Euskaltzaindiaren hileroko bilkuretan hizkuntzarekikoak izan dira gai nagusiak. Hiztegi Batuaren, Gramatikaren eta Onomastikaren alorrean hartu dira erabakiak. Kasuan kasuko batzordeak erabaki-proposamena prestatu duenean Euskara Batuko batzordearen eskuetan utzi du, eta honek euskaltzain osoen hileroko bilkuran aurkeztu. Aztergai jakin bat aurkeztu denetik hogeit eguneko epea izaten dute euskaltzainek proposamenari idatzizko oharrak egiteko; horrela, hurrengo hileko osoen bilkuran, ohar horiek aztertzen dira eta erabakitzen.

Hizkuntza-erabakiok *Euskera*-n eta *Euskaltzaindiaren Arauak* izeneko bilduman argitaratzen dira. Harpidedunek urtean hiru aldiz jasotzen dituzte Euskaltzaindiaren hilez hileko hizkuntza-erabakiok.

1999an zehar Hiztegi Batuari dagokionez, *nahi* - *yuppy* bitarteko hitz zerrenda onartu da. Honako bi arau hauek berrikusi dira, bestalde: 38.a: “Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak” izenekoak, eta 53.a: “Munduko estatuetako hizkuntza ofizialak” izenekoak.

Urtarrilean:

- Hiztegi Batuko *nahi* - *oihan*; *oihanbide* - *orburu* hitz-zerrendak.
- Onomastikako “Zuberoako Herri Izendegia”.

Otsailean:

- Hiztegi Batuko *oinordetza* hitza eta *ortozik* - *pasmo* hitz-zerrenda.

Martxoan:

- Hiztegi Batuko *osoko* eta *osatugabe* hitzak eta *paso* - *pikaldi* hitz-zerrenda.

Apirilean:

- Hiztegi Batuko *paso* - *pikaldi* hitz-zerrenda.

Maiatzean:

- Onomastikako *Europar Batasuna* erakundearen izena onartu da.
- Hiztegi Batuko *pikante-postu* hitz-zerrenda.

Ekainean:

- Onomastikako “Zuberoako herritarren izenak”.

Uztailean:

- Onomastikako 38. eta 53. arauen zuzenketak onartu dira.
- Hiztegi Batuko *pitxi* hitzaz erabakia hartu da; *postura* - *santu* eta *santugile* - *soprano* hitz-zerrendak.

Irailean:

- Hiztegi Batuko *postura* - *santu*, *santugile* - *soprano* eta *sor* - *suspertzaile* hitz-zerrendak.

Urrian:

- Hiztegi Batuko *suspirio* - *suziri* hitz-zerrenda.

Azaroan:

- Hiztegi Batuko *tabako* – *to* hitz-zerrenda.

Abenduan:

- Hiztegi Batuko *tatarrez* eta *telekomando* hitzak; *tobera* - *triskatu*, *triskilatu* - *tzartasun* eta *ubarroi* - *yuppie* hitz-zerrendak.

### ***Bestelako erabakiak***

#### **Andres Iñigo, euskaltzain oso**

Euskaltzaindiak, 1999ko otsailaren 26an, Baionako Fakultatean egin duen osoko bilkuran Andres Iñigo Ariztegi hautatu du euskaltzain oso, Federiko Krutwig-en hutsartea betetzeko. Iñigo jauna, une honetan, Onomastika batzordekidea, Jagon sailkidea eta Nafarroako ordezkaria da.



*Baionako Fakultatean, 1999-II-26an: Euskaltzaindiaren osoko bilkura.*

#### **Batzordekide berrien izendapena**

Zuzendaritzaren proposamenez, osoko batzarrak batzordekide berri hauek izendatzea erabaki du otsailaren 26an Baionan egin diren XI. Barne Jardunaldietan:

- *Orotariko Euskal Hiztegia*: Ainara Estarrona eta Amaia Olabarria.
- *Atlasgintza*: Iñaki Camino eta Juan Antonio Letamendia.
- *Onomastika*: Jean-Baptiste Orpustan eta Gidor Bilbao. Onomastika batzorde honen aholkulari gisa honako jaun-andre hauek izendatu ditu: Patxi Galé, Roldán Jimeno Aranguren, Jose Luis Ormaetxea, Eugenio Riaño eta Amaia Usabiaga.
- *Literatura Ikerketa*: Maria Jose Olaziregi eta Patxi Salaberri Muñoa.
- *Azkie Biblioteka*: Kepa Altonaga eta Gidor Bilbao. Aholkulari gisa: Joseba Agirreazkue-naga eta Jose Maria Jimeno Jurío.



– Lege-Ekonomia: Jon Artatxo (Lege azpibatzerako) eta Juan Luis Laskurain (Ekonomia azpibatzerako).

### ***Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa***

Zuzendaritzak Fundazioa abiarazteko, Javier Saizar jaunarekin zerbitzu-kontratua egitea erabaki du. Euskaltzaindiaren lanen eta egitasmoen txostena prestatu du barnerako, ondoren Fundazioaren sortzaile eta bazkide izango direnei aurkeztu ahal izateko.



*Egoitzan, Bilbon, 1999-VII-20an, Lege-Ekonomia batzordearen bilera. Ezkerretik eskuinera: Abel Muniategi, Jon Artatxo, Jose Antonio Arana Martija, Jon Castañares, Jean Haritschelhar, Javier Saizar, Sebastián García Trujillo.*

### **Julio Urkixo eta R. M. Azkueren omenezko Biltzarra**

Euskaltzaindiak XV. Biltzarra egitea erabaki du, Julio Urkixoren eta R. M. Azkueren omenez, biltzar horretan gai hauek aztertuko direlarik:

1. Hizkuntzaren historia, ahaidetasun gorabeherak barne.
2. Hiztegi gintza.
3. Hizkuntza ereduak: estandarra eta aldaerak.

Bestalde, biltzar horretarako batzorde hauek sortzea erabaki du Euskaltzaindiak:

#### *Batzorde akademikoa:*

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, batzordeburu  
Patxi Goenaga, idazkaria, batzorde idazkari  
Kideak: Beñat Oihartzabal, Iker sailburu eta Dialektologia batzordeburua  
Ibon Sarasola, Hiztegi gintza batzordeburua  
Patxi Altuna, Gramatika batzordeburua  
Georges Rebuschi, euskaltzain urgazlea  
Jokin Gorrotxategi, hizkuntzalari.

#### *Antolakizun batzordea:*

Jose Antonio Arana Martija, diruzaina, batzordeburu  
Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea, batzorde idazkari

Kideak: Juan Jose Zearreta, ekonomia eragilea  
Pello Telleria, eragile teknikaria  
Jose Antonio Aduriz, Hiztegi Batuko arduraduna  
Jesus Mari Makatzaga, Gramatika batzorde idazkaria.

### *Barne erregelak*

Barne Erregelaren testuaren aldaketak lehenagotik onartuak baziren ere, euskaltzainek axaleko zenbait zuzenketa onartu dituzte, eta bereziki Euskaltzaindiaren jabego intelektualaz atal berri bat ere itsastea erabaki dute.

### *Erakundearen ordezkapenak*

Euskaltzaindiak 1999. urtean zehar kanpoko zenbait ekintzatarako ordezkariak aukeratu ditu:

- 1998. urteko *Euskal Herritar Unibertsala* sari ematera, apirilaren 22an, Henrike Knörr buruordea.
- EUDELekiko hitzarmenaren Jarraipen batzordekide bi izendatu dira: Henrike Knörr Onomastika batzordeburua eta Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailea eta Onomastika batzordekidea.
- EITBrako ordezkaria. Eusko Legebiltzarren eskariz, Euskal Irrati Telebistaren Administrazio Kontseiluko ordezkariak Henrike Knörr jaunaren izena proposatzea erabaki da.
- Leizaola Kultur Elkarteak apirilaren 20rako antolatu duen III. Euskal Astearen "Euskararen egoera, gaur egungo gizarte eta komunikabideetan" gaiari buruzko mahai-inguruan aritu da Xabier Kintana euskaltzaina.
- "Acció Cultural del País Valencià" delako erakundeak, apirilaren 24an, Valentziako Unibertsitateko Filologia Fakultatean antolatu duen ekitaldirako Henrike Knörr euskaltzainburuordea izendatu da. Ekitaldi horretan "Declaración de Valencia por los derechos de las lenguas catalana, gallega y vasca" deritzan adierazpena irakurri da. Gainerako hizkuntza horien Akademietako ordezkariak bezala, Henrike Knörrek ere hitzaldia egin du Euskaltzaindiaren izenean, katalanez eta euskaraz.
- Andoingo Udaletxean, "XI. Ricardo Arregi" kazetaritza saria emate-ekitaldian, Juan Mari Lekuonak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Iruñeko Larraona Ikastegian egin den XXVII. Udako Euskal Unibertsitatearen sarrere-ekitaldian, Andres Iñigo Nafarroako ordezkaria izan da.
- Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Saileko Euskadiko Lan Harremanen Kontseiluak gonbidatuta, uztailaren 19an egin den *Euskarazko eta Gaztelaniazko lan harreman terminologiaren Hiztegia*-ren aurkezpenean Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailea izan da Bilboko Ercilla hotelean.
- Renoko Aste Nagusiko Biltzarra uztailaren 19tik 25a bitartean egin da. Henrike Knörrek Euskaltzaindiaren izenean hitzaldia egin du, euskaraz eta ingelesez, biltzar horretan omendu zirenak eta "Basque Studies Program" erakundea goraiatuz eta orain dela 40 urte egin zen biltzarrean Euskaltzaindiaren izenean bertan izan zen Kastor Uriarte jauna gogoratuz.



*Renoko Euskal Aste Nagusian, 1999-VII-19an. Ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, William A. Douglass eta honen emaztea.*

- Luis Jauregi “Jautarkol”en lan guztiak biltzen dituen liburuaren aurkezpenerako, Errenteriako Udaletxean, Juan Mari Lekuona izan da ordezkari.
- Urrian, Eusko Jaurlaritzan hasiera eman zaio “Euskal Giza Taldeen II. Mundu Biltzarra”ri. Ekitaldi horretan Henrike Knörr euskaltzainburuordeak ordezkatu du Euskaltzaindia.
- Urriaren 27an, Durangoko Liburu eta Disko Azoka birtualaren aurkezpenean Jose Luis Lizundia izan du Euskaltzaindiak ordezkari.



## I.2. EKITALDIAK

### 1899ko Euskal Jaien mendeurren-ospakizuna Aramaion

Aramaion Euskal Lore Jokoak egin zirela ehun urte bete dira irailean eta Euskaltzaindiak Arabako herri horretan parte hartu du herriko alkateak egindako gonbitari erantzunez. Lore Jokoen mendeurrenaren ospakizun-ekitaldien antolamenduan Eusko Ikaskuntzarekin batera aritu da Euskaltzaindia eta irailean, osoko bilkuraz gain, IV. Jagon Jardunaldiak ere egin ditu.

Ospakizun horien barruan, irailaren 26an, *Herriko seme kutun* izendatuak izan dira Jesus Maria Elejalde, Bizente Goikoetxea Abesbatza, Pedro Pujana, Sabin Salaberri, Joxe Mari Velez de Mendizabal eta Patxi Uribarren. Aipatutako jaun hauek bertan jaso dute izendapena Pedro Pujanak izan ezik. Honek, urriko bilkuran jaso du bere domina Aramaioko alkatea den Iñaki Nafarrateren eskutik.



*Bilbon, egoitzan, 1999-X-29an, Aramaioko Udalak herriko seme kutun izendatu ondoren domina emate-ekitaldian. Ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Pedro Pujana, Iñaki Nafarrate.*

### Victoriano Huiziren *Gramática Bascongada*-ren eta Aingeru Irigarairen mendeurrena

Etxarri-Aranazko Kultur Etxean 1999ko ekainaren 24an ekitaldi publikoa egin da Huiziren *Gramática Bascongada*-ren eta Aingeru Irigarairen mendeurrena ospatzeko. 150 lagun ingururen aurrean, ohiko sarrera-agurraz aparte, eskeinitako hitzaldiak honako hauek izan dira: Andres Iñigo, Nafarroako ordezkaria: “1923an Etxarri-Aranatzen egin ziren Euskal Jaien oroimenean”;



*Etxarri-Aranarazko Kultur Etxea.*

Joxemiel Bidador, filologoa: “Biktoriano Huiziri buruzko berri laburra (1860-1938)”; Patxi Goenaga euskaltzaina: “Victoriano Huiziren *Gramática Bascongada*”; Jose Angel Irigaray, euskaltzain urgazlea: “Aingeru Irigaray, gizarte zibilean barna”; Jose Mari Satrustegi, euskaltzaina: “Aingeru Irigaray euskararen sustatzaile”.

### **Errose Bustintzaren menduurena**

Mañarian 1899ko irailaren 3an jaio zen ipuin kontalariari omenaldia egin diote Mañariko Udalak eta Euskaltzaindiak urriaren 21ean eta 22an:



*Mañariko Udaletxean, 1999-X-21ean, Errose Bustintzaren menduureneko ospakizun-ekitaldian. Ezkerretik eskunera: Jabier Arteaga, Jabier Kaltzakorta, Jean Haritschelhar.*

- Urriaren 21ean, Mañariko zaindaria den Santa Urtsula egunean, herriko alkateak eta euskaltzainburuak Errose Bustintzaren jaiotetxean oroitarria jarri dute, eta Xabier Kaltzakorta euskaltzain urgazleak hitzaldia irakurri du: “Errose Bustintza, herri-kronista eta idazle”.
- Urriaren 22an Zuzendaritza bildu da, eta Literatura Ikerketa batzordeak ere hileko bilera Mañarian egin du. Iluntzean, Igone Etxebarria euskaltzain urgazlearen berbaldia izan da: “Errose Bustintza idazlea eta andrea Bizkaiko euskal literaturan”.

## **XI. Barne Jardunaldiak**

Euskaltzaindiak 1979az geroztik bi urtean behin *Barne Jardunaldiak* egiten ditu. Lehen gai nagusi bat izan ohi du bakoitzak, bigarrena sail eta batzordeen organigrama berriztatzea eta osatzea izaten delarik. Jardunaldiok txandaka egiten dira herrialdez herrialde; XI. Jardunaldiak Baionan, Paue eta Aturri Herrialdeetako Unibertsitateko Fakultatean egin dira, otsailaren 26an.

Oraingoan gai nagusia Jagon saila izan da, batez ere bere organigrama eztabaidatu delarik. J. L. Lizundiak, “Jagon Sailaren organigrama Barne Jardunaldietan zehar: 1979-1999” txostena aurkeztu du; J. San Martinek, “Jagon Sailaren ardurapeko lehen lanari buruz” izeneko txostena; Koldo Zuazok, “Euskararen osasuna eta euskalkiak” eta Miren Azkaratek, “Jagon Saila: gaurko egitasmoak” izenekoa.

Garai bateko alfabetatzea ekarri du gogora J. San Martinek. Orduko dokumentuak ikertzearen beharra aipatu du, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan, Herri Administrazioek eta elkarteek hartu baitute garai batean Jagon Sailak bere ardurapean zituen zenbait alor. Iparraldean Hizkuntz Kontseilu baten premia aipatu da, bertan euskarak ez baitu ofizialtasunik.

Jagon saila bi batzordetan banatzea onartu da: lehenbizikoa hizkuntzaz beraz arduratuko dena, eta bigarrena hizkuntzaren sustapenez arituko dena.

Bestalde, Koldo Zuazoren lana abiapuntutzat har daitekeela ikusi da, euskalkiek duten aberastasuna euskara batuari nola erantsi aztertzeke orduan.

Jagon Saila ez da inoiz ahaztu hizkuntzaren estatusaz. Egoki ikusi da estatusaz arduratuko den batzordearen azpian ere lantaldeak izatea, bata eskualdeekiko arazoez eta bestea, legearekiko ez arduratuko liratekeenak.

## **Ikastaro eta mintegiak**

Euskaltzaindiak urtean zehar zenbait ikastaro eta mintegi ere antolatu ditu:

### *Toponimia Ikastaroak*

Ekainaren 4an EUDELen Bilboko egoitzan ikastaro bat egin da. Honako hitzaldi hauek osatu dute ikastaro hori: Jose Luis Lizundia Onomastika batzordekideak, “Toponimoen ofizialtasunaz eta administrazio arteko aplikazio arazoez” hitz egin du. Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkariak “EUDELekeko hitzarmena dela eta Euskaltzaindiaren toponimia lantaldearen plangintza” gaia jorratu du.

Eta azkenik, Patxi Salaberri Zaratiegi, Onomastika batzordekide eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak, “Toponimia normalizatzeko irizpideak. Nafarroako esperientzia” izan du aztergai.

Ikastaro honetan 54 lagunek hartu dute parte, gehienak udaletako euskara-teknikariak.

Ekainaren 25ean bigarren ikastaro bat eskaini da Etxarri-Aranatzen, aurreko ikastaroaren jarraipena, hitzaldiak Nafarroako egoerara egokituz. Ikastaro honetan 24 partaide izan dira.



*Etxarri-Aranarazko Kultur Etxean, 1999-IV-25ean, II. Toponimia Ikastaroa. Mahaian ezkerretik eskuinera: Mikel Gorrotxategi, Patxi Salaberri Zaratiegi, Jose Luis Lizundia.*

### *Gramatika Mintegia*

Victoriano Huiziren *Gramática Bascongada*-ren mendeurrena ospatzeko, 1999ko ekainaren 25ean, Etxarri-Aranazko udal-liburutegian, I. Gramatika Mintegia egin da. Ekimen honetan *EGLU V* liburukiaren eta, orohar, Gramatika batzordearen lanaren zenbait txosten aurkeztu dituzte batzordeaz kanpoko hiru lagunek. Honako hauek izan dira txostengileak eta jorratu dituzten gaiak:

- Juan Carlos Odriozola, euskaltzain urgazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea: “Posposizioak *EGLU*n: egitura motak eta gramatika-kategoriak”.
- Igone Zabala, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea: “Gramatika-kategoriak eta *EGLU*”.
- Luis Mari Larringan, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea: “-(e)na eta -(e)la enuntziatio ikuspegi batetik”.

### *Ahoskera ikastaroak EITBn*

Euskal Irrati Telebistak, Euskadi Irratiko Julian Belokiren bitartez, Euskaltzaindiaren Arauetan argitaratu berri den ahoskera-gomendioari buruzko azalpenak emateko eskatu dio Ahoskera lantaldeburua den Miren Lourdes Oñederrari. Honek, bina orduko saio bi eskaini ditu Donostian eta Iurretan martxoan eta apirilean.



### I.3. ERAKUNDE MAILAKO HARREMANAK

#### Eusko Jaurlaritzako Lehendakariari bisita

Martxoaren 18an, Gasteizko Ajuriaenea Jauregian, ikustaldia egin dio Zuzendaritzak hautatu berria izan den Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakariari.



*Gasteizen, Ajuria-enean, 1999-III-18an, Euskaltzaindiak Lehendakariari egindako bisita. Ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Juan Jose Ibarretxe, Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia.*

#### Nafarroako Unibertsitate Publikora bisita

Maiatzaren 12an Azkue Bibliotekako zuzendariak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Biblioteka bisitatu du, hango zuzendaria den Guillermo Sánchez jaunarekin bilduz. Bisitaren helburua *Azkue Bibliotekaren Katalogoa (ABK)* egitasmoari buruzko informazioa eskaintzea izan da, etorkizunean izan daitekeen edozein harremani begira Azkue Bibliotekaren laguntza eskainiz.

#### Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundietan

Zuzendaritzak bisita egin dio, irailaren 9an, Arabako Diputatu Nagusia den Ramón



*Gipuzkoako Foru Aldundian, 1999-IX-10ean. Ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Jose Antonio Arana Martija, Henrike Knörr, Patxi Altuna, Roman Suedupe, Jean Haritschelhar, Luis M<sup>a</sup> Bandres, Patxi Goenaga, Juan Mari Lekuona.*

Rabanera jaunari, Euskaltzaindiak kargudun izendatu berriekin egin ohi duenez. Biharamunean, irailaren 10ean, Roman Sudupe Gipuzkoak Diputatu Nagusiari egin dio bisita Euskaltzaindiak.

### **Hezkuntza eta Kultura Ministerioa**

Mariano Rajoy Hezkuntza eta Kultura ministroak gonbidatuta, Madrilen izan da Zuzendaritza azaroaren 16an.

### **Nafarroako eta EAEko senatoreekin**

Senatuko buruak, Esperanza Aguirre andreak gonbidatuta, azaroaren 16an, Euskaltzaindia Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako senatoreekin bildu da, eta senatore horiekin bazkaldu, ondoren.

### **Eusko Jaurlaritzako Lehendakariaren bisita**

Abenduaren 30ean, berriz, Lehendakari jauna Euskaltzaindiaren egoitzan izan da, gure Erakundea hobeto ezagutu nahian. Euskaltzainburuak ongi etorria egin ondoren, Lehendakariak bere mintzaldia irakurri du. Honen ostean, Euskaltzaindiaren web gunea aurkeztu zaio eta baita Azkue Biblioteka ere.



*Egoitzan, 1999-XII-30ean, Lehendakariak Euskaltzaindiari egindako bisita. Ezkerretik eskuinera: Juan Jose Ibarretxe, Jean Haritschelhar.*

## I.4. AURKEZPENAK

Euskaltzaindiaren zenbait argitalpeni ere eskaini zaie jendaurreko aurkezpena:

- Otsailaren 25ean aurkeztu da, Baionako Udaletxean, René Lafon-en artikulua hautatuak biltzen dituen *Vasconiana* liburua; 898 orrialdeko liburu mardul honek Iker saileko 11. zenbakia du. Aurkezpenean Akitania eskualdeko kontseilari eta Baionako auzapez den Jean Grenet-ek, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak eta Pello Salaburu Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak parte hartu dute.
- Martxoaren 25ean, Plaza Barriko egoitzan, Pedro de Yrizarren *Morfología del verbo auxiliar bajo navarro occidental* izeneko liburua aurkeztu da. Liburu hau, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak elkarrekin sinatua duten hitzarmenaren babesean argitaratu da. Liburuaren aurkezpen-ekitaldian mahaiko izan dira Pedro de Yrizar, liburuaren egilea, Jean Haritschelhar, euskaltzainburua, Miren Azkarate, EHUko Irakasleen errektoreordea eta Iñaki Perez Iglesias, EHUko Euskara errektoreordea.



Egoitzan, 1999-III-25ean, *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro occidental* liburuaren aurkezpenean. Ezkerretik eskuinera: Pedro de Yrizar, Jean Haritschelhar, Miren Azkarate.

- Gasteizko Udalaren Oihaneder / Montehermoso Jauregian, Jose Angel Cuerda Alkatea mahaiburu izan delarik, apirilaren 21ean, egin da Gerardo López de Guereñu Galarraga euskaltzain ohorezko zenaren *Voces alavesas* liburuaren bigarren argitaraldiaren aurkezpena. Lehen argitaraldia Euskaltzaindiak 1958. urtean egin zuen *Euskera*-n. Bigarren argitaraldi honen arduradun Henrike Knörr izan da, eta testuaren zuzentzaile, Elena

Martinez de Madina, Gasteizko Toponimia lantaldekoa. Liburu hau, Gasteizko Udalak Euskaltzaindiarekin egina duen hitzarmenaren babesean argitaratu da.

- *Zuberoako herrien eta herritarren izendegia*. Urriaren 15ean, Iruñeko ordezkarietan, aurkeztu zaio prentsari liburuska hau, Henrike Knörr, Mikel Gorrotxategi eta Andres Iñigo batzordekideen eskutik. Biharamunean, urriaren 16an, Mauleko Herriko Etxean aurkeztu da. Oraingo honetan, Jean Haritschelhar, Jean-Louis Davant, Jean Lougarot Mauleko auzapeza, Mikel Gorrotxategi eta Jose Luis Lizundia izan dira aurkezleak. Gonbidatuen artean Zuberoako zenbait zinegotzi, ikastolak, AEK eta beste elkarte batzuetako ordezkariak izan dira.

## I.5. SARIKETAK

Euskaltzaindiak Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioren babespean literatur sarietak deitzen ditu, bai haurrentako bai helduendako.

### R. M. Azkue sariak (1998)

Martxoaren 12an, egoitzan, 1998ko R. M. Azkue sarien irabazleak jakinarazi dira eta aurreko urteko sarituen argitalpena aurkeztu da. Hona hemen, 1998ko Azkue sarien irabazleak:

*A MAILA* (10 - 13 urte bitartekoak).

*Epaimahaia:* Amagoia Lopez de Larruzea, Gerardo Markuleta, Manu Lopez Gaseni.

*Narrazioa* (221 ipuin):

1. saria: *Joan doa, etorri dator*. Egilea: Malen Zobaran Santos, Gernikako Seber Altube Ikastolakoa.
2. saria: *Baso babestua*. Egilea: Ane Larrañaga Epelde, Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastolakoa.
3. saria: *Zonbisorginak*. Egilea: Argia Akarregi Garalde, Ondarroako Txomin Agirre Ikastolakoa.

*Poesia* (21 poema):

1. saria: *Eromena... amen*. Egilea: Iban Izagirre Uranga, Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastolakoa.
2. saria: *Maitasunaren arrastoa*. Egilea: Ainhoa Aranberri Eizagirre, Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastolakoa.



*Egoitzan, 1999-III-12an:* 1998ko R. M<sup>a</sup> Azkue sariaren irabazleak.

3. saria: *Badakit*. Egilea: Amaia Bereziartua Paredes, Azpeitiko Karmelo Etxegarai Ikastolakoa.

*B MAILA* (14 - 17 urte bitartekoak).

*Epaimahaia*: Xabier Altzibar, Joan Otaegi, Joseba Butron.

*Narrazioa* (153 ipuin):

1. saria: *Aingerua naiz*. Egilea: Imanol Carballo Tolaretxipi, Pasai Lezo Lizeokoa.
2. saria: "*El mejor descanso*". Egilea: Naiara de Miguel Pinillos, Lapuebla de Labarcako Assa Ikastolakoa.
3. saria: *Batek daki*. Egilea: Nerea Perez Anguas, Irungo Pio Baroja Institutukoa.

*Poesia* (96 poema):

1. saria: *Itsasoa*. Egilea: Imanol Carballo Tolaretxipi, Pasai Lezo Lizeokoa.
2. saria: *Soberakinekin jolasean*. Egilea: Irati Goikoetxea Asurabarrena, Beasaingo Alkartasuna Lizeokoa.
3. saria: *Korrespondentzia erratua da nirea*. Egilea: Iñaki Gurrutxaga Zubimendi, Zarauzko Lizardi Institutukoa.

Azaroaren 12an, egoitzan, aurkeztu da 1998an saritutako lan horiek biltzen dituen liburua: *R. M. Azkue Saria: Narrazioak eta olerkiak 1998*. Liburu horretan, sariak irabazitako lanez gain epaimahaiaren aipamena izan zutenak ere argitaratu dira. BBKren diru-laguntzaz argitaratu den liburu honen prestatzailea Juan Luis Goikoetxea izan da. Bestetik, 1999ko Azkue sariaren oinarriak aurkeztu dira ekitaldi berean.



*Egoitzan, 1999-XI-12an, R. M. Azkue Saria: Narrazioak eta olerkiak 1998 liburuaren aurkezpena. Ezkerretik eskuinera: Juan Luis Goikoetxea, Jose Ramon Bilbao, Henrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija.*

### **Tx. Agirre, T. Altzaga, F. Arrese Beitia eta M. Zarate literatura sariak**

Halaber, ekainaren 18an, 1999ko honako sari hauek aurkeztu dira:

- Txomin Agirre saria (eleberria)
- Toribio Altzaga saria (antzerkia)
- Arrese-Beitia saria (olerkia)
- Mikel Zarate saria (saioa).

Ekintza berean, 1998an sari horiek irabazitako lanen argitalpenak aurkeztu dira:

- Toribio Alzaga antzerkia: *Jon gurea, Parisen hatzana*: Juan Karlos del Olmo Serna.
- Arrese-Beitia olerkia: *Ibaia euri-erasotan bezala*: Jose Luis Padrón Plazaola.
- Mikel Zarate saioa: *Euskaldunak, liberalak eta komunitatezaleak*: Jon Sudupe Martija.

Abenduaren 16an literatura-sari hauen 1999ko irabazleak jakinarazi dira:

- Txomin Agirre saria (eleberria): *Ipuin-entzulea*. Aitor Arana
- Toribio Alzaga saria (antzerkia): *Bake biltzarraren ildotik*. Mikel Ugalde
- Felipe Arrese Beitia saria (olerkia): *Hautsia natza*. Juan Luis Zabala
- Mikel Zarate saria (saioa): *Nazio-identitatea eta eskola*. Joxe Manuel Odriozola



*Egoitzan, 1999-XII-16an, 1999ko literatura-sariak emate-ekitaldian. Ezkerretik eskuinera: Juan Luis Zabala, Mikel Ugalde, Aitor Arana, Joxe Manuel Odriozola.*





## I.6. BESTELAKOAK

### Hilberri-txostenak

Azken urtean zendu diren euskaltzain oso, ohorezko eta urgazleen omenez Euskaltzaindiak honako hilberri-txostenak eskaini ditu:

- Urtarrilaren 29an, egoitzan, Xabier Kintanak eta Luis Villasantek Federiko Krutwig euskaltzain oso zenaren hilberri-txostena irakurri dute; Xabier Gereñok, Julita Berrojalbizena eta Juan San Martinek Inazio Maria Barriolarena.



*Egoitzan, 1999-I-29an, hilberri-txostenak irakurtzen. Ezkerretik eskuinera: Juan San Martin, Luis Villasante, Jean Haritschelhar, Patxi Goenaga, Xabier Gereño.*

- Apirilaren 23an, Donostiako ordezkarietan, Serafin Basauri jaunak Imanol Laspiur (Bergara, 1929 - Eibar, 1998) euskaltzain urgazle zenaren omenezkoa.



*Gipuzkoako Diputazioan, 1999-XI-26an: Jose Mari Satrustegi, Bernardo Estornés Lasaren hilberri-txostena irakurtzean.*

– Azaroaren 26an, Gipuzkoako Batzar Nagusien aretoan, Mikel Atxaga jaunak Ambrosi Zatarain euskaltzain urgazlearena; Juan San Martin jaunak, Jose Antonio Loidi ohorezkoarena, eta Jose Mari Satrustegi jaunak Bernardo Estornes Lasa ohorezkoarena.

## **II. Sailak eta batzordeak**

### **II. 1. Iker Saileko batzordeak**

II.1.1. Hiztegi gintza

II.1.2. Gramatika batzordea

II.1.3. Dialektologia-Atlas gintza batzordea (Euskal Herriko  
Hizkuntz Atlasa)

II.1.4. Onomastika batzordea

II.1.5. Literatura batzordea

II.1.5.1. Herri Literatura azpibatzordea

II.1.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzordea

II.1.6. Batzorde suntsikorrak

II.1.6.1. Euskara Batuko batzordea

### **II. 2. Jagon Saila**



## BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren lana batzordeetan egiten da hein handi batean. Euskaltzaindiaren egungo lan akademikoa ezin ulertuzkoa litzateke hilero-hilero biltzen diren batzordekideen lanik ez balego. Elkar-lan horretan oinarritzen dira Euskaltzaindiak hartzen dituen hizkuntza erabakiak.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: *Iker Saila* eta *Jagon Saila*. Bi urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Aurten, hain zuzen, 1999ko otsailean eta martxoan, berritu dira batzordekideak.

Batzordekideez gain, aholkulariez ere baliatzen dira batzordeak. Lantaldeak ere sortzen dira, kasuan kasuko premien eta baliabideen arabera. Euskaltzain oso eta urgazleez gain, esparru desberdinetako adituak biltzen dira batzorde horietan: unibertsitateetako eta institutuetoako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegiak eta administrazioko teknikariak. Hori horrela izateak Euskaltzaindiaren lana aberasteaz aparte, oso oinarri sendoak eskaintzen dizkio erabakiak hartzeko orduan. Baina horrek prozedura zailtzea dakar, batzordekideek beren ogibidea baitute, eta Euskaltzaindiarentzat egiten duten lana tartekako zerbait izaten baita.

### Lan-metodologia

Talde-lana da batzordeetan egiten dena. Hasieran batzordekide jakin baten txostena hartzen da oinarri. Gero etorriko dira eztabaidak eta lana osatzera datozen proposamenen onarpena. Prozesu honek txostenak bi edo hiru aldiz berridaztea ekar dezake, batzordeak testua osorik ontzat eman orduko.


Zenbait kasutan, bekadun edo lan-hitzartuen laguntza izan dezake batzordeak, informazioa eskuratzeko. Hori da Hiztegi Batuan edo Onomastikan gertatzen dena, adibidez.

### Batzordeen bilerak

Hona hemen, batzorde desberdinek 1999an egindako bileren berri.

Batzordea	Zenbat bilera 1999an
Hiztegi Batuko lantaldea	22
Gramatika batzordea	12
Dialektologia-Atlasa batzordea	12
Onomastika batzordea	19
Herri Literatura azpibatzaordea	9
Literatura Ikerketa azpibatzaordea	11
Euskara Batuko batzordea	25
Jagon-Corpus batzordea	5
Jagon-Sustapen batzordea	2
Argitalpen batzordea	2
Azkue Biblioteka batzordea	7
Lege-Ekonomia batzordea	5
<b>GUZTIRA:</b>	<b>131</b>

## Batzordeen bilerak hilez hil



## **II.1. IKER SAILEKO BATZORDEAK**

### **II.1.1. HIZTEGIGINTZA**

#### **II.1.1.1. Orotariko Euskal Hiztegia**

Akademia batendako hiztegegintza oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Une honetan Euskaltzaindiak bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta Hiztegi Batua.

*Orotariko Euskal Hiztegiak*, hiztegi historikoa eta deskriptiboa den aldetik, garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bildu nahi du. Euskaldunak, mende eta euskalkietan zehar nolako hizkuntzaz baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzea da hiztegi honen xedea. Hiztegi hau aurrera eramateko hitzarmena 1984an sinatu zen eta lehen liburukiak 1987an ikusi zuen argia. Guztira 16 liburuki izango omen dituen obra honen hamabigarren aleak ikusi du 1999an argia.

### **1999ko lanen berri**

#### **XII. liburukia**

##### **Idazketa**

XII. liburukiaren idazketa martxoan amaitu da.

##### **Zuzenketak**

A) Urtarrila eta iraila bitartean, *Mak - Oal* zerrendaren testua zuzendu da.

Zuzenketa-lanok epeka egin dira (ikus eranskina):

- a) Adibideen zuzenketa (hiztegiaren corpus nagusia osatzen duten testu eta adibideak).
- b) Sarrera-buruak (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegegileen aipuak, etab.).
- c) Koordinazio eta zuzenketa: *Mak - Oal* zatia landu da. Bi zuzentzailereren artean egiten da lan hau: lehenbizi nor bere zuzenketak eginez eta ondoren bata bestearenak aztertuz.
- d) Zuzenketa filologikoa eta lexikografikoa.

B) Proben zuzenketa: irail-urrietan, liburukiaren (*Mak - Oal* arteko testua) inprimategiko bi proba zuzendu dira, honela, liburukia argitaratzeko prest utziz.

##### **Argitalpena**

1999ko abenduan inprimatu da *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren XII. liburukia (*Mak - Oal*). Liburu honek honako ezaugarri hauek ditu:

- 932 orrialde
- 9.552 hitz-sarrera desberdin

### XIII. liburukia

#### Idazketa

Martxotik abendura bitartean, *Oam-Oz* zerrendari dagokion testua idatzi da, ondoko eranskinean ikus daitekeenez.

#### Zuzenketak

Azaro eta abenduan zuzenketa-lan hauek burutu dira:

- a) Adibideen zuzenketa: *Oam* zatiaren zuzenketa burutu da.
- b) Sarrera-buruak: *Oam* zatia landu da. Hemen euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegigileen aipuak, etab. jasotzen dira.
- c) Koordinazio eta zuzenketa: *Oam* zatia landu dute bi zuzentzaileek, lehenbizi nork bere zuzenketak eginez eta ondoren batak bestearnak aztertuz.



## 1. ERANSKINA

### 1999ko ERREDAKZIO-LANAK

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
o-/of-	o-/of-	ok-/om-	ok-/om- ore-/orr-	ore-/orr-	ore-/orr-	ore-/orr-	ore-/orr-	ore-/orr- ot-/oz-	ot-/oz-	ot-/oz-	ot-/oz-
na-/nar-	na-/nar- on-/one-	on-/one-	on-/one-	on-/one-	on-/one-	on-/one-	on-/one-	on-/one-	on-/one-	on-/one-	on-/one- ord-/
nor-/ny-	nor-/ny- nas-/naz-	oo-/ord-	oo-/ord-	oo-/ord-	oo-/ord-	oo-/ord-	oo-/ord-	oo-/ord-	oo-/ord-	oo-/ord-	-----
ne-/ni-	ne-/ni- ong-/onz-	ong-/onz-	ong-/onz-	ong-/onz-	ong-/onz-	ong-/onz-	ong-/onz- ors-/osu-	ors-/osu-	ors-/osu-	ors-/osu-	ors-/osu-
og-/oj-	og-/oj-	og-/oj-	og-/oj-	og-/oj-	og-/oj-	og-/oj-	og-/oj-	og-/oj-	og-/oj-	og-/oj-	og-/oj-

## 2. ERANSKINA

### 1999ko ZUZENKETA-LANAK

	Koordinazioa eta zuzenketa		Testu zuzenketa	Sarrera-buruen zuzenketa	Zuzenketak fil. eta lexik. mar.
Urtarrila	ma-maz		mar-/mas-	mak-/me-	
Otsaila	me-/mi-		mas-/me- me-/men-	me-/mi	
Martxoa	mi-/mo-	ma-	men-/mil-	mi-/mo-	ma-/mi-
Apirila	mu-/na-		men-/mil- mil-/mir-	mi-/mo- mu-/na-	mo-/mu-
Maiatza	na-/ne-	mu-	mil-/mir- mis-/mug-	mu-/na-	na- ma-/mu-
Ekaina	ni-/oaz-	na-/no-	mis-/mug- mug-/naa-	no-/oaz-	ne-/oaz- na-
Uztaila	ni-/oaz-	nu-/oaz-	mug-/nar-	no-/oaz-	ne-/oaz
Abuztua	mak-		-----	no-/oaz-	
Iraila		mak-	nar-/nes-	no-/oaz-	mak-/mi
Urria	oal-	oal-	nes-/nu	no-/oal	mi-/oal- mi-/oal-
Azaroa	oam-		oam-	oam-	
Abendua	oam-		oam-	oam-	

### II.1.1.2. HIZTEGI BATUKO LANTALDEA

*Orotariko Euskal Hiztegia* deskribatzailea eta historikoa da. *Hiztegi Batua*, berriz, hiztegi arauemailea dugu.

Euskaltzaindiak zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatal Izendegia*, etab. Zatikako hiztegi hauek premia jakinei erantzuten bazieten ere, Akademiak nahitaezkoztat jo zuen euskara batuaren oinarritzko hiztegia osatzea. Horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Oinarritzko hiztegi honek euskaldunak eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituen hitzak finkatuko ditu, hizkuntzaren batasuna beti ere helburu dela.

Lanaren metodologia eta irizpideak 1992an zehaztu zituen batzordeak eta 1993an hasi zen lehen hitz-zerrenda aztertzen eta ontzat ematen.

Hiztegi Batua bi zatitan lantzen ari da. Horietan lehenak forma erabilienak edota hedatuena jasotzen ditu, eta bigarrenak erabilera urriagokoak. Lehenengo pasaldian, 1997an amaitua, 20.000 hitz edo forma aztertu ditu Hiztegi Batuko lantaldeak. 1997an lantzen hasi zen bigarren zatia beste horrenbeste forma izango ditu aztergai. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 40.000 hitz inguru izan ditzake Hiztegi Batuak. Euskaltzaindiak argitaratuak ditu lehen zatiko formak, hitz-zerrendak osoen batzarretan aztertu, onartu eta arautu ondoren. Arau gisa eman ditu argitara, atalez atal. Gero liburu gisa ikusiko dute argia.

### 1999an burututako lanak

#### Hitzen azterketa

1999an zehar lantaldeak egindako 22 bileretan 6.780 forma aztertu ditu, *erasgarri - hutsune* artekoak. Forma horiek ikusi eta berrikusi ondoren lantaldea kasuan kasuko ondorio eta proposamenetara iritsi da.

Hainbat informazioaren argitan lan egin du lantaldeak. Horietan nabarmentzekoak dira:

- a) Euskaltzaindiak arautu dituen lehen pasaldiko formak: 1999an aztertu den tarte horri dagozkion forma arautuak 4.090 dira.
- b) erabilera idatziaren eta bestelako informazioen lekuko diren txostenak: 850 bat izan ditu aurten esku artean, UZEIko prestalaneko taldeak eginak, eta iturri nagusiak *Orotariko Euskal Hiztegia (OEH)* eta *Egungo Euskararen Bilketa-Lan Sistematikoa (EEBS)* corpusak izan dira.
- c) taldeak berak landu eta lantzen dituen irizpideak: aztergai kasuka aipatzen dira, eta sistematizaturik dagoen dokumentuan biltzen.

#### Irizpideen txostena eguneratu

Laneko irizpideak sistematizatzen dituen dokumentua osatuz eta eguneratuz doa. Horrela, auzigai berriak agertu ahala, dagoen konponbidea ere zehaztu ahal izango du lantaldeak.

Irizpide horien eta kasuan kasuko informazioaren argitan aztertu dira forma edo hitzak eta

hautako bakoitzaz lantaldeak bere iritzia eskaini du, zabalago batzuetan, soilago besteetan, onartzeko forma den esanaz, edo bigarren mailan onartzekoa den, edo okerra den, zein erabileremu duen, nola ageri den syntaxian, zein den duen adiera, etab.

Lanaren lekuko izango da datu horiek guztiak jaso eta egituratzen dituen dokumentua. Hau da euskaltzainei eta gainerako iritzi-emalteei banatzen zaiena.

## II.1.2. GRAMATIKA BATZORDEA

Gramatika batzordea 1980an eratu zen eta orduz gero ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen. 1984tik 1999ra bitartean zortzi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak* izenburuarekin.


Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da. Gramatika arlo honek dituen bi atal nagusietarik (aditz jokatuaz baliatzen diren perpausak eta aditz jokatu gabeaz baliatzen direnak) lehenbizikoa darama oraingoz eskuartean.

### 1999an egindako lana

Gramatika batzordeak 1999an hamabi bilera egin ditu, gehienak goiz eta arratsalde, guztira sei bat ordukoak.

#### *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V: menderakuntzari buruzko lehen liburukia*

Menderakuntzari buruzko gaiak lantzea izan du lan nagusia batzordeak aurreko urteetan bezala 1999an ere. Txostenen azken bertsioak aztertu eta landu ondoren, 1999an plazaratu da



*Euskal Gramatika. Lehen Urratsak V (Mendeko Perpausak-1)* izena duen 500 orrialdeko liburukia. Liburu horretan zenbait perpaus mendeko aditz jokatudun aztertu dira, orain arteko gramatiketan nekez aurki daitekeen sakontasunez aztertu ere: aditz jokatzeko perpaus erlatiboak, perpaus osagarriak, konparaziozkoak eta ondoriozkoak biltzen ditu argitalpenak. Ondorengo bi liburukietarako utzi dira, beraz, gainontzeko perpaus mendeko jokatuak eta jokatugabe guztiak.

Udan eta uda ondorengo hiletan egin da liburuko txosten guztien orrazketa-lana: txosten guztiei batasuna eman, gai aurkibidea eta bibliografia prestatu, txostenen laburpenak egin, eta abar.

### **Araugintza**

Gramatikazko araugaiak ere aztertu, eztabaidatu eta prestatu ditu batzordeak. Batzuk berriak dira, eta beste batzuei beste idatzaldi bat eman zaie.

- “Mugatu singularra noiz erabili iraupena eta maiztasuna adierazten duten zenbatzailedun Izen Sintagmetan”
- “Perpaus osagarri izenlagunen atzizkiak: *-eN / -eLAKO*”
- “Komunztadura aposizioetan”
- “Juntadura arazo batzuez”
- “Euskarazko aditz modalak”

Araugai hauek arau izatera iritsiko dira euskaltzainen osoko bilkurak onartzen dituenean.

### **Hizkuntza kontsultak**

Tarteka, batzordera iritsi diren kontsultei zegokien erantzuna eman zaie.

### **II.1.3. DIALEKTOLOGIA-ATLASGINTZA BATZORDEA.** ***EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA***

Inkesta-sarea, galdesorta eta inkesta-metodologia landu eta finkatu ondoren, 1986an probak egin eta 1987an hasi ziren inkestak egiten. Euskal Herriko 145 herritan egin ziren galdeketak: Bizkaian 36 herritan, Gipuzkoan ere 36 herritan, Araban batean, Nafarroan 27 herritan, Lapurdin hamabostetan, Nafarroa Beherean 18tan eta Zuberoan 12tan.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun egin dira: 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. 145 herri horietan eginiko inkestez 2.400 zinta grabatu ziren. Horrela, 4.000 ordu baino gehiagoko grabazioak ditu bildurik Euskaltzaindiak.

Egitasmoaren helburua inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea, eta oro har ondorio horiek publikoaren eskuetan jartzea da.

#### **1999ko lanak**

EHHA lantaldeak 1999an izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- datuak base automatizatuan sartzen jarraitu;
- datu-sartzea atondu;
- mapak prestatu argitalpenari begira;
- antologiarako audio materiala eta transkribapenak prestatu.

#### **Hirugarren koadernoko inkestaren datuak sartzen jarraitu**

1999. urtean 26 inkesta informatizatu dira EHHA egitasmoan. Hirugarren atala informatizatzea amaitu da urtearen hasieran. Laugarren atalekoak sartzen hasi aurretik beste bi zereginetan jardun dute datu-sartzaileek. Batetik, atal horri dagozkion galderen edukinak bateratzeko eta erreferenteak adosteko erabakiak hartzen. Bestetik, editoreek aurkeztutako mapak eta datu-basearen orrazketa gainbegiratzen jardun dute, batez ere, datuen tratamenduari dagokionean; egindako ohar eta iradokizunak editoreei itzuli zaizkie.

Bestalde, laugarren atala bitan banatzea edo zatitzea erabaki da: *4-a* atalak 36tik 51ra bitarteko gaiak, biak barne, hartuko ditu; *4-b* atalak 52tik 60ra bitartekoak. *4-a* atala informatizatuko da lehenik. Atal honek duen konplexutasuna dela eta (teknologia tradizionala lantzen da: garraioak, lurra lantzeko lanabesak, sagardogintza, ardogintza...), zintak entzutera jo behar izan dute datu sartzaileek behin baino gehiagotan.

Hona hemen informatizatu diren 26 herri horiek zein diren, lurraldeka:

- 3. atalean: Nafarroa Beherea (4): Arnegi, Behorlegi, Ezterenzubi eta Uharte Garazi.
- 4. atalean:
  - Bizkaia (4): Fika, Leioa, Orozko eta Sondika.
  - Gipuzkoa (8): Beasain, Beizama, Donostia, Elduain, Errezil, Ikaztegieta, Orea eta Zestoa.
  - Nafarroa (8): Alkotz, Arbizu, Donamaria, Etxaleku, Ezkurra, Mezkiritz, Urdiain eta Suarbe.

- Lapurdi (1): Sara.
- Nafarroa Beherea (1): Behorlegi.

Horrekin batera, lehen sartutako hamar herrietako inkesta hauen zuzenketak egin dira ordenagailuan: Arnegi, Arrangoitze, Behorlegi, Beskoitze, Ezterenzubi, Fika, Itsasu, Makea, Sara eta Uharte Garazi.


### 1. irud.: laugarren koadernoko datu-sarreraren egoera lurraldeka

4- a ATALA	Lehendik eginak	1999an eginak	Egiteko	Guztira
BIZKAIA	4	4	28	36
ARABA	0	0	1	1
GIPUZKOA	5	8	23	36
NAFARROA	7	8	12	27
LAPURDI	0	1	14	15
NAF. BEHEREA	2	1	15	18
ZUBEROA	3	0	9	12
<b>GUZTIRA</b>	<b>21</b>	<b>22</b>	<b>102</b>	<b>145</b>

### Datu-sarreraren egoera orokorra

Ondoko taulan adierazten da 145 herrietako bost koadernoetan dauden datuak zenbateraino bilduak diren ordenagailuan:

### 2. irud.: datu-sarrera osoaren egoera 1999. urtearen amaieran



### Datuen lantzea:

#### – Lehen liburukia

Lehen liburukiaren editore bakoitzak landutako gaiak eta eraikitako mapak bildu ostean azken orrazketa eta maketazio lanak egin dira urte hasieran. Mapak amaitutzat jo ondoren gai-



nontzeko atalak landu dira: sarrera eta hasierako azalpenak, inkesta-leku eta lekukoen zerrenda, alfabeto fonetikoa, indexak (erantzunak alfabetikoki eta superlemak mapaka eratuta), galderen aurkibidea (hiru hizkuntzatan jarria). Paperezko argitalpena egiteko lanak burutu ditu batzordeak eta Argitalpen batzordearen gain utzi du gaia bideratzea, jarraipena egiteko taldekide bat izendatuz.

Liburuaren gaia amaitutzat emanez, CD euskarrian argitaratuko den datu-basearen txukunketa lanak burutu dira. Bi puntutan oinarritu da lana: oharren txukuntzea eta egokitzea (32.083 ohar orotara) eta liburukiko erantzunen zerrendan egindako oharrak basean sartzea. Urtearen amaiera aldera CDaren ezaugarriak landu dira.

### **– Bigarren liburukia**

Bigarren liburukiari ekin aurretik hausnarketa egin du lantaldeak lehen liburukian izandako arazoei emandako irtenbideez batetik eta, programa informatikoaren hobekuntzak bilatuz, bestetik.

Urtean zehar 221 mapa landu dira. 24 galdera falta dira 2. liburukiak izango dituen 245 mapak guztiz amaitzeko.

### ***Ohiko euskal mintzamoldeen ANTOLOGIA***

145 herritan Atlaserako egin diren inkestetatik minutu eta erdiko lagina eskaintzea du helburu argitalpen honek. 1999an, geroago CDetan eskainiko diren testuak, liburuan argitaratu dira. Bestetik, horren osagarri diren lau audio CD eta multimedia CD bat gertu utzi dira argitaratzeko.

ERANSKINA

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA  
DATU SARRERA: 3. ETA 4. ATALA (1999-XII-31)

1999an

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
101 Getxo						
102 Leioa						
103 Zollo						
104 Sondika						
105 Laukiz						
106 Lemoiz						
107 (Uribe-) Etxebarri						
108 Zaratamo						
109 Orozko						
110 Mungia						
111 Zeberio						
112 Bakio						
113 Fika						
114 Larrabetzu						
115 Arrieta						
116 Lemoa						
117 Dima						
118 Zeanuri						
119 Errigoiti						
120 Bermeo						
121 Busturia						
122 Euba						
123 Mañaria						
124 Otxandio						
125 Ibarri						
126 Mendata						
127 Kortezubi						
128 Elantxobe						
129 Berriz						
130 Arrazola						
131 Elorrio						
132 Bolibar						
133 Gizaburuaga						
134 Lekeitio						
135 (Markina) Etxebarri						
136 Ondarroa						
201 Aramaio						
301 (Leintz-) Gatzaga						
302 Arrasate						
303 Eibar						
304 Araotz (Oñati)						
305 Oñati						

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
306 Bergara						
307 Elgoibar						
308 Mendaro						
309 Deba						
310 Azkoitia						
311 Urretxu						
312 Legazpi						
313 Zegama						
314 Ezkio-Itsaso						
315 Zestoa (Arroa)						
316 Azpeitia						
317 Getaria						
318 Beizama						
319 Beasain						
320 Ataun						
321 Errezil						
322 Aia						
323 Orio						
324 Asteasu						
325 Ikaztegieta						
326 Amezketza						
327 Tolosa						
328 Donostia						
329 Lasarte						
330 Andoain						
331 Elduain						
332 Oresa						
333 Hernani						
334 Pasaia						
335 Oiartzun						
336 Hondarribia						
401 Urdiain						
402 Arbizu						
403 Dorrao						
404 Gaintza						
405 Leitzza						
406 Etxarri						
407 Oderitz						
408 Goizueta						
409 Ezkurra						
410 Beruete						
411 Igoa						
412 Etxaleku						
413 Suarbe						
414 Sunbilla						
415 Donamaria						
416 Etxalar						
417 Alkotz						
418 Aniz						
419 Lekaroz						
420 Zugarramurdi						

INKESTERRIA	A T A L A K					
	1	2	3	4a	4b	5
421 Eugi						
422 Erratzu						
423 Zilbeti						
424 Mezkiritz						
425 Luzaide						
426 Abaurregaina						
427 Eiaurrieta						
501 Hendaia						
502 Donibane-Lohizune						
503 Azkaine						
504 Sara						
505 Senpere						
506 Ahetze						
507 Arrangoitze						
508 Uztaritze						
509 Mugerre						
510 Itxasu						
511 Urketa						
512 Beskoitze						
513 Hazparne						
514 Makea						
515 Bardoze						
601 Aldude						
602 Bidarra						
603 Baigorri						
604 Arnegi						
605 Uharte-Garazi						
606 Irisarri						
607 Isturitze						
608 Arruta-Sa.						
609 Armendaritze						
610 Ezterenzubi						
611 Gamarte						
612 Landibarre						
613 Behorlegi						
614 Arboti						
615 Garruze						
616 Jutsi						
617 Larzabale						
618 Bastida						
701 Phagola						
702 Domintxine						
703 Urdiñarbe						
704 Altzürükü						
705 Larrañe						
706 Altzai						
707 Sohüta						
708 Muntori						
709 Santa-Grazi						
710 Ürrüxtoi						
711 Barkoxe						
712 Eskiula						

## II.1.4. ONOMASTIKA BATZORDEA

Onomastika batzordeak 1999an zehar 19 bilera egin ditu.

### **Euskal Deitura Izendegia osatzen**

*Euskal Deituren Izendegia* 1998an argitaratu ondoren, liburu horretan agertzen ez diren beste 36 deitura erabaki dira batzordean 1999an zehar.

### **Ponte Izendegia**

Liburugaiaren egitura onartu da eta baita izendegia egiteko erabilitako irizpideen txostena ere. Emakumezkoen izendegian *Abarne - Zuzene* arteko izenak onartu dira eta, gizonezkoenean, *Abaigar - Haritzeder* artekoak. Izendegian toponimo diren izenak -Andra Maria izenak, adibidez-onartzeko erabiliko diren irizpideak ontzat eman dira.

### **Herri izenak**

Hiru udal-izen eta Arabako bi kontzeju-izeni buruzko irizpenak eman dira.

### **Biztanle-entitateak (herriak, auzoak, kuadrilak)**

Auzo-izenak. Irizpide moduan, errepikatutako izenetan, auzo-izena udal ezberdinetan errepikatzen denean udal izena atzean jarriko da, *Elexalde-Berriatua*, adibidez; hala ere, eguneroko erabileran ken daiteke, *Elexalde* jarritz. Hagionimoetan, jatorrizko leku-izenari emango zaio lehen-tasuna, eta bestelako tradizioz ez badago hagionimoaren aurrean jarriko da, Elgoibarko *Azkue San Roke*, esaterako.

Laburbilduz, hauek onartu ditu batzordeak: Bilboko 3 auzo-izen; Toloserriko 7 auzo-izen; Urola Kostako 54 auzo-izen; Beterriko 35 auzo-izen; Gasteizko kuadrilako 63 izen; Durangaldeko, Lea-Artibaiko eta Debarroko 200 herri- eta auzo-izen; Gorbeialdeko eta Aiarako biztanle-entitate batzuk; Goierriko 52 herri- eta auzo-izen; Enkarterriko 131 herri- eta auzo-izen; Uribe-Mungia merinaldeko 64 herri- eta auzo-izen.

### **Nafarroako herri-izendegiaren berrazterketa amaitu**

Batzordeak 13 herri-, auzo- eta ibar-izen berraztertu eta onartu ditu.

### **Lapurdiko herri-izendegia**

*Lapurdiko herri izendegia* banatu da batzordean. Lapurdiko eta Nafarroa Behereko euskaltzain osoei eta euskaltzain urgazleei bidaltzea erabaki da, oharrak egin ditzaten. Jasotako proposamenak eta oharrak aztertu dira batzordean.

### **Zuberoako herritarren izenak**

“Zuberoako herritarren izenak”. Zuberoako herritarrei nola deitu behar zaien finkatzen

duen proposamena aztertu du Onomastika batzordeak. Proposamenak bi atal ditu: erabilitako irizpideak eta herritarren izenak. Batzordeak proposatu ondoren, Euskaltzaindiak onartu egin du izen-degi hori.

### **Exonomastika**

Esparru honetan ere zenbait puntu landu ditu batzordeak:

- 38. eta 53. arauak berrikusi eta osatzeko proposamena aurkeztu dio batzordeak euskaltzainen osoko batzarrari.
- *Unión Europea*-ren euskal ordaina *Europar Batasuna* izatea proposatu dio batzordeak osoko batzarrari.
- Gertuko exonomastika: Burgosko eta Errioxako izen-zerrendak aztertu dira.

### **Toponimia-lanak gainbegiratu**

Bermeo, Galdakao eta Hondarribiko toponimia-lanak gainbegiratu ditu batzordeak, udal horiek hala eskaturik.

### **Toponimoak normalizatzeko irizpideak**

“Toponimia txikia normalizatzeko irizpideak”: Nafarroako toponimia normalizatzeko erabilitako txostenetik abiatuz, Euskal Herriko toponimoen normalizazioa egiteko erabili behar diren hizkuntza-irizpideak aztertu eta finkatu dira.

### **Kale-izenak**

Badostain, Barrundia, Bilbo, Donostia, Gasteiz, Kripan, Lantziego, Leioa eta Ordiziako 285 kale-izen onartu dira batzordean.

### **Erakundeen eta elkarte desberdinen kontsultak**

1. Udal hauei erantzun zaie: Amasa-Villabonakoari, *Goikoetxegoikoa* baserri-izenaz; Bergarako Udalari *Goiena* izenaz; *Bidania* eta *Ergobia* izenen deklinabideaz; Berrizko Udalari *Matzagabarrena* auzo-izenaz; Durangoko Udalari zazpi kale-izenez; Trapagarangoari zenbait toki-izenez.
2. Bizkaiko Foru Aldundiari eskualdeen izenez, eta *Pirinioetako Behi Gorri* izenaz.
3. Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari, bi toki-izenen deklinabideaz.
4. Erronkari eta Zaraitzuko Ibar-batzarrei, *Valle*-ren eta *Juntas Generales*-en euskal ordainez.
5. Euskal Irrati Telebistari, gaztelaniazko toponimoetako artikulua erabileraz eta Euskal Herriko mendatez.
6. Dirección General del Instituto Geográfico Nacional-i eta Arabako zenbait udali *Toloño mendizerra* izena dela eta.
7. Enpresa publikoei eta pribatuei, etxe-multzo eta industrialde berrien izenez.

### **Kontsulta solteak**

Herritar eta elkarte pribatuen 30 galderari erantzun die batzordeak (ponte-izenak, deiturak eta leku-izenak, batez ere).

## **ICOSen parte hartu**

Irailan, Compostelako Donejakuen egin den ICOS delakoan, hots, XX. Nazioarteko Onomastika Biltzarrean parte hartu dute Onomastika batzordekide hauek, txosten bana aurkeztuz: Henrike Knörrek, Mikel Gorrotxategik, Andres Iñigok, Jose Luis Lizundiak, Elena Martinez de Madinak eta Patxi Salaberrik.

Biltzar honetan Zuzenbidez eta Onomastikaz aritu den 9. Saileko buruorde izan da Jose Luis Lizundia.

### **J. M. Satrustegiren txostena: “Pertsona izendegiak egindako bideak”**

Baionan, otsaileko osoko batzarrean, Pertsona izendegien inguruan berrogei urtetan zehar egindako lanaren berri eman du Satrustegi jaunak, izendegi lantze horren historia laburra eskainiz: argitalpen desberdinak, bakoitzaren xehetasunak, etab.

### **Gasteizko Toponimia lantaldea**

Euskaltzaindiaren eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmenari esker, Gasteizko Toponimia lantaldea 1996.ean sortu zen, honako kide hauez osatua: buru Henrike Knörr; kideak: José Antonio González Salazar, Elena Martinez de Madina, Montserrat Ocio, Juan José Galdos eta Zuriñe Rescalvo.

Egitasmo honen xedea, XIII. mendetik hona Gasteiz bereganatzen joan den inguruko 64 herrisketako toponimia handia eta txikia biltzea da. 1999. urtean, Toki-izenen dokumentazioa artxibo hauetan arakatu du lantaldeak: Gasteizko Parrokietako Unibertsitate – Kabildoko Artxiboa (A.C.U.P.), Otatzuko Artxiboa eta Gasteizko Udal Artxiboa (A.M.V.).

Azken ekitaldian, 81.223 toponimia-sarrera jaso dira datutegian. Aurreko urteetako lana kontuan izanik, guztira 348.813 erregistro edo sarrera daude jasoak Gasteizko Toponimiaren egitasmoan.






## II.1.5. LITERATURA BATZORDEA

### II.1.5.1. HERRI LITERATURA AZPIBATZORDEA

Herri Literatura azpibatzerdeak 1999an zehar 9 bilera egin du.

#### Jardunaldietako agiriak argitaratu

Herri Literaturari buruzko V. Jardunaldiak 1998ko azaroaren 13an eta 14an egin ziren Tolosan, bertako seme Antonio Maria Labaien (Tolosa, 1898-1994) euskaltzainaren mendeurrena ospatuz, *Herri-antzerkia* gaia hartuta.



Jardunaldietako lan guztiak argitaratu dira 1999an, *Euskera*, 1999, 1 zenbakiko 11-317. orrialdeetan, eta baita separata moduan ere. Hona hemen, banan-banan, lan bakoitzaren berri:

– Gurrutxaga, Jose: “Antonio Maria Labaienen mendeurren ospakizuna”, 13-14 or.

- Haritschelhar, Jean: "Antonio Maria Labaienen mendeurrena", 15-16. orr.
- San Martin, Juan: "Antonio Maria Labayen euskaltzainaren oroimenez", 17-24. orr.
- Zubimendi, Joxe Ramon: "Antonio Maria Labaien (1898-1994) hitz bitan", 25-36. orr.
- Urkizu, Patri: "Antonio Maria Labaien (1898-1994) eta Euskal Antzerkia", 37-49. orr.
- Sirera, Josep Lluís: "El teatro valenciano en su contexto festivo", 51-67. orr.
- Oihartzabal, Beñat: "Noizkoak diren Zuberoako pastoralei dagozkien lehen dokumentuak", 69-88. orr.
- Peillen, Txomin: "Bizitzaren komediak Zuberoan", 89-105. orr.
- Arejita, Adolfo: "Peñafloridaren literatura eta hizkera ekarriaz", 107-128. orr.
- Kaltzakorta, Jabier: "Sebastian Antonio de la Gandararen euskal lanak", 129-209. orr.
- Lekuona, Juan Mari: "Pedro Ignazio de Barrutia: Gabonetako ikuskizuna", 211-216. orr.
- Etxehandi, Martzel: "Besta-Berriko ibilaldiaren sinbolikaz", 217-221. orr.
- Aranalde, Joxemari: "Orixeren Euskaldunak eta festa-giroa", 223-237. orr.
- Massip, Francesc: "El infierno en escena: presencia diabólica en el teatro medieval europeo y sus pervivencias tradicionales", 239-265. orr.
- Fernandez de Larrinoa, Kepa: "Zuberoako maskaradak izeneko herri antzerkiaren ahozko literaturaz", 267-282. orr.
- Irigoien, Mattin: "Tobera berriaz, ... edo hobeki erran: gaurko toberaz", 283-291. orr.
- Luku, Antton: "Oraingo antzerkiak", 293-300. orr.
- Davant, Jean-Louis: "Pastoralaren aldaketaz", 301-313. orr.
- Herri Literatura azpibatzerdea: "Ondorioak", 315-317. orr.

### Herri-literaturaren inguruko ekintzak

Bertso jarrien sariketa hauetako epaimahaietan hartu dute parte azpibatzerde honetako kideek:

- Zarauzko *Basarri* sarian, Juan Mari Lekuonak eta Joxe Mari Aranaldek.
- Orixeko *Orixe* sarian, Joxe Mari Aranaldek.
- Gipuzkoako bertsolari-txapelketan, Pello Esnal epaimahaikoa izan da.
- Zarautzen, bertsolari gazteentzat antolatutako *Lizardi* sarian, Pello Esnal arduradun eta epaimahaikoa izan da.

Herri-literaturari buruzko hitzaldiok eman dituzte batzordekideek 1999an zehar:

- Antonio Zavalak, Zarauzko Olerti-etxean, urtarrilean: "Bilintxen beste alderdiak".
- Antonio Zavalak, Burgosen, ekainean: *Los merineros* liburuaren aurkezpena.
- Antonio Zavalak, azaroan: "Herri literatura", Deustuko Unibertsitateak Antonio Zavala *Doctor Honoris Causa* izendatzean.
- Jabier Kaltzakortak, goian aipaturiko omenaldian, Deustuko Unibertsitatean, "Herri literaturako altxorrik handiena" izeneko hitzaldia egin zuen.

### Urteurren-ospakizuna

Errose Bustintza "Mañariko"ri, mendeurreneko ospakizunean Mañariko Udalak eta Euskaltzaindiak egindako omenaldian parte hartu du Jabier Kaltzakorta batzordekideak honako hitzaldi hau eginez: "Errose Bustintza, herri-kronista eta idazle".

## VI. Herri Literatura Jardunaldiak prestatzen

Azpibatzerde honek, bileraz bilera landu ondoren, zirriboratu egin du 2000. urtean herri-literaturari buruz egingo diren jardunaldien egitaraua. Jardunaldien nondik norakoa eta hizlari eta txostengile nagusiak zehazturik utzi dira.

Bilbon egingo dira jardunaldi horiek, Euskaltzaindiaren egoitzan, 2000ko abenduaren 28an eta 29an, Justo Maria Mokoroa jaio zeneko urtearen mendeurrenaren atarian, *fraseologia* gaia hartuta.

## II.1.5.2. LITERATURA IKERKETA AZPIBATZORDEA

Literatura Ikerketa azpibatzeak 11 bilera egin ditu urtean zehar. Euskal Literatura Hiztegia lantzen dihardu taldeak. Hitz-zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango ditu hiztegi horrek, maila eta luzera ezberdineko txostenak eskainiz. Helburua berrogeita bat artikuluz luze, ehun artikuluz ertain eta seihun artikuluz laburrez osatutako hiztegia eskaintzea da.

### Idatzi eta eztabaidatutako txostenak

Batzordeak honako artikuluz hauek prestatu eta eztabaidatu ditu. (\*) Marka duten txostenak egileek berridatzi ondoren batzordeak berraztertu dituenak dira:

a) Artikuluz luzeak (batez beste 7-8 orrialdekoak):

Literatura historia (\*)  
Poetika

b) Artikuluz ertainak, batez beste 2-3 orrialdekoak:

Errima (\*)  
Estrofa  
Mitokritika  
Testu-artekotasun

c) Artikuluz laburrak, normalean orrialde batekoak:

Ahapaldi, bertso	Katalektiko
Ahapeko	Koplari
Antzezleku	Lehen mintzaldi edo prologo
Antzeztalde	Litotes
Antzeztoki	Marraski zerrenda
Antzoki (*)	Nihilismo
Aporia	Ohitura eleberri
Apostrofe	Onomatopeia
Asindeton	Panfletu
Azken mintzaldi edo epilogo (*)	Paraliteratura
Deprekazio	Parnasianismo
Elipsia: a) figura erretorikoa	Parodia
Enumerazio	Paronomasia (*)
Erretizentzia	Pastitxe
Erronda edo albada	<i>Patchwork</i> (genero nahasketa)
Eufemismo	Perifrazi
Hiperbole	Polisindeton (*)
Homoiptoton	Saga
Homoioteleuton (*)	Sarkasmo
Hoskidetza (*)	Serenata
Hots multzo bokaliko	Solas zuzen
Inprekazio	Suspense
Isokolon	Tabu
Janbo	Telenobela

Tesi	Xikito
Tipo	Zehar solas
Trama korapilotsu	Zeugma
Ultraismo	Zinema
Umore	Zirtolari

### **Epai-mahaietan parte hartzea**

Espainiako Literatura Sari Nazionaletako epaimahaikide izan dira azpibatzerdeko hauek:

- Narratiba: Maria Jose Olaziregi
- Saiakera: Lourdes Otaegi
- Antzerkia: Patri Urkizu
- Haur literatura: Juan Kruz Igerabide

Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren sarietako epaimahaiko izan dira azpibatzerdeko kide hauek:

- Txomin Agirre eleberria: Gorka Aulestia, Txomin Peillen, Ana Toledo
- Toribio Alzaga antzerkia: Patri Urkizu
- Felipe Arrese Beitia olerkia: Jon Kortazar, Juan Mari Lekuona
- Mikel Zarate saiakera: Xabier Altzibar

## II.1.6. BATZORDE SUNTSIKORRAK

### II.1.6.1. EUSKARA BATUKO BATZORDEA

Euskaltzaindiak eskuartean duen batasungintzaren bidean, gai jakin bat hizkuntz arau bihurtu nahi denean Euskaltzaindiak kasuan kasuko erabakia hartzen du. Azken proposamena euskaltzain osoen batzarrari aurkezten diona Euskara Batuko batzordea da, gaien azterketa eta oinarrizko proposamenak dagokion batzordetik prestatuak badatoz ere.

Euskara Batuko batzordeak, hala deritzanean, aholkua eskatzen die euskalgintzako alor desberdinetan lanean ari diren profesionalei, direla administrazioetako funtzionarioak, argitaletxeetako eta komunikabideetako euskara-zuzentzaileak, nahiz irakaskuntza-munduko teknikariak, itzul-tzaileak, idazleak eta abar.

1999an zehar 25 bilera egin ditu Euskara Batuko batzordeak.

#### Araugai berriak

Beste batzorde batzuetatik (Hiztegi Batua, Gramatika eta Onomastikatik) etorritako txostenak aztertu eta eztabaidatu ditu batzordeak hilez hil. Ondoren, euskaltzain osoen hileroko batzarraren aurkeztu dira txostenak, betiere oharrak egiteko epea izan delarik. Euskaltzain osoek egingdako oharrak ere aztertu ditu batzorde honek eta bere iritzia eman dio osoen batzarrari. Ondoren adierazten diren hitz-zerrenda eta txosten hauek izan ditu batzorde honek aztergai:

#### *Hiztegi Batua:*

- *ordain - ortopediko*
- *ortozik - pasmo*
- *paso - pikaldi*
- *pikante - postu*
- *postura - santu*
- *santugile - soprano*
- *sor - suziri*
- *tabako - to*
- *tobera - triskantza*

Batzordeak, hitz-zerrenda hauez gain, euskaltzainek horiei egingdako 540 hitzeko ohar-txostenak ere aztertu ditu.

#### *Gramatika:*

- “Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma”. Etorrizunekoan noiz *-EN* eta noiz *-KO*.
- “Mugatu singularra noiz erabil daitekeen iraupena eta maiztasuna adierazten duten zenbatzailedun sintagmetan”

#### *Onomastika:*

- “Santu, san, done eta ingurukoak”. Onomastika batzordetik jaso da proposamen berria. Euskara Batuko batzordean eztabaidatu da, eta adostasunik egon ez denez, ez da eraman

osoko bilkurara erabaki-proposamenik. Gai honi buruzko txosten hauek izan ditu esku artean Euskara Batuko batzordeak: a) “Beñat Oyharçabalen txostenei egin beharreko zehaztapenak” izeneko txostena, Onomastika batzordearena; b) “Santutegiko *done* forma Hegoaldeko tradizioan” izeneko txostena, Onomastika batzordekide batek egina; eta “Gomendio-erabakiak” izeneko proposamena, Euskara Batuko batzordeak egina, Onomastika batzordearekin bilera egin ondoren.

- “Zuberoako herri izendegia”
- “Zuberoako herri eta herritarren izenak”
- “Munduko estatu-izenak, herritarren izenak, hizkuntza ofizialak eta hiriburuak”
- “Munduko estatuetako hizkuntza ofizialak”.

### **Hizkuntza kontsultak**

*Erein* argitaletxetik letra larrien erabileraz egindako galdera aztertu da. Planteatzen den gaiaren erabilera libre uztea dela egokiena uste du batzordeak.

## II.2. JAGON SAILA: CORPUS ETA SUSTAPEN BATZORDEAK

Zazpi izan dira Jagon sailak 1999an egin dituen bilerak.

Euskaltzaindiak Baionan, urte hasieran bertan, 1999ko otsailean egindako X. Barne Jardunaldietan Jagon Saila bi batzordetan banatzea erabaki du:

- Corpus batzordea euskararen corpora jagoteaz arduratuko da, helburutzat hizkuntzaren kalitatea harturik.
- Sustapen batzordea hizkuntzaren estatusaz arduratuko da.

Bi batzorde horien arteko harremana eta elkar-lana bideratzeko, berriz, Jagon Saileko Batzorde Iraunkorra sortu da.

### Hizkuntzaren erabilera zuzena

- Azken aldiko galdera eta hizkuntza zalantza ugariei erantzun zaie, eta Aramaion egin diren IV. Jagon Jardunaldietan eman da horien berri, bertan izan direnei kopia bana emanaz.
- Corpus batzordeak, euskalgintzako alor nagusietako premiei erantzun ahal izateko, lan-taldeak sortzeko eta osatzeko urratsak egin ditu. Zerbitzu hobea eskaini ahal izateko, barne-antolaketa sendotzen hastea erabaki du, giza baliabideak eratuz. Azpialtal hauek aurreikusi dira: Kontsulta-zerbitzua, Ikastaroen lan-taldea, Komunikabideen lan-taldea eta Euskalkien lan-taldea.
- Hizkuntzaren kalitatea dela-eta, aipatzekoa da Euskaltzaindiko Corpus batzordeak, Hezkuntza Sailaren eskariz, Sail honetako Euskara Zerbitzuarekin hasi duen elkarlana, euskarazko testu-liburuen hizkuntza-egokitasuna hobetzeko ahaleginean.



*Euskaltzaindiko Egoitzan, 1999-I-29an, herri-aldizkarietako ordezkariak. Ezkerretik eskuinera: Patxi Petirena, Jose Felix Diaz de Tuesta, Joxe Aranzabal, Ibon Sarasola, euskaltzain osoa, Ainhoa Elices, Ainhoa Lodoso.*

## Kontsulta-erantzunen datu-basea

Euskaltzaindira iritsitako kontsultez hornitutako datu-basea ezin osatu izan da, bitartekorik izan ez delako; urte bukaera arte ez da mamitu Euskaltzaindiaren egituraketa informatikoa.

Azpiegitura informatikoa jarri gabe bazegoen ere, Corpus batzordeak zenbait urrats egin ditu, eskaini nahi den zerbitzua finkatzeko eta horren berri emateko:

- “Jagon saila: gaurko egitasmoak” izeneko txostena aurkeztu eta irakurri du Miren Azkarate Jagon sailburuak, Baionan, 1999ko otsailaren 26an, Euskaltzaindiaren X. Barne Jardunaldietan (Aturri Herrialdeetako Unibertsitatearen Baionako Fakultatean). Eginkizunez gain, organigrama berria aurkeztu da, Jagon saila bi batzordetan banatzea proposatuz. Euskaltzaindiak onartu egin du proposamen hori, eta bi batzorde horietako kideak izendatu ditu 1999an, gainerako batzordeetakoekin batera.
- Batzordeak “JAGONET: beharrak” izeneko txostena aurkeztu dio Euskaltzaindiari, informatika-ezarpenari ohar gisa.
- “JAGONET egitasmoa”: izenburu hori duen txostena aurkeztu dio Corpus batzordeak Euskaltzaindiari, eta Zuzendaritzak onartu. Egitasmo hau jendaurrean aurkeztu da geroago aipatuko diren IV. Jagon Jardunaldietan.
- JAGONET egitasmoarentzako diru-baliabideak lortzeko lanetan batzorde-idazkariak ere parte hartu du.

## IV. Jagon Jardunaldiak

1899ko Euskal Jaien mendeurrena dela-eta IV. Jagon Jardunaldiak egin dira Aramaioko Udaletxean, 1999ko irailaren 25ean. Jardunaldi hauek Sustapen eta Corpus batzordeek elkarrekin antolatu dituzte, eta hauek izan dira irakurri eta aurkeztu diren gaiak eta txostenak:



*Aramaioko Udaletxean, 1999-IX-25ean, IV. Jagon Jardunaldietan. Ezkerretik eskuinera: Iñaki Nafarrate, Miren Azkarate, Joxe Ramon Zubimendi*



Atal amankomuna:

- Miren Azkarate, Jagon sailburua eta Corpus batzordeburua: "Jagon egitasmoa azaldu"
- Miren Azkarate: "Euskaltzaindiaren araugintza (IV)" (Hizkuntza zalantzak argitu)
- Andres Urrutia, Sustapen batzordeburua: "Euskararen sustapenerako ahaleginetan"
- Juan San Martin, euskaltzaina: "Hizkuntza, hiztunen giza eskubideen arabera"

Batzorde bakoitzaren arloa:

a) Corpus alorrari dagokionez:

- Joxe Ramon Zubimendi, euskaltzain urgazlea eta Corpus batzordeko idazkaria: "JAGONET egitasmoaren aurkezpena euskalgintzako profesionali"

b) Estatus alorrari dagokionez:

- Erramun Baxok, euskaltzain urgazlea: "Euskara elez eta legez Ipar Euskal Herrian"
- Andres Iñigo, euskaltzain osoa eta Nafarroako ordezkaria: "Nafarroa: euskara bermatzeko bide berrien beharra"
- Henrike Knörr, euskaltzainburuordea: "Euskara Arabatik begiratuta"

Sustapen batzordeak, abiapuntu moduan, Euskal Herriko lurralde bakoitzean euskararen egoera zertan den azaldu nahi izan du.

### Sustapen batzordea

Sustapen batzordeak 1999ko ekainaren 25ean egin du lehenengo bilera, Etxarri-Aranatzen. Bilera hori batzordea eratzeko izan da, bertan batzordearen ibilbidea finkatu delarik. Besteren artean, euskarari egindako hainbat erasori erantzuteko beharra nabarmendu da.

Honela, azken urteotan Jagon sailean gutxiago landu eta zaindu den alor honi heldu zaio, berriazko batzordea sortuz.



*Etxarri Aranazko Kultura Etxean, 1999-VI-25ean, Sustapen batzordearen bilera. Ezkerretik eskuinera: Juan San Martin, Andres Urrutia, Gotzon Lobera, Juan Mari Lekuona, Henrike Knörr, Andres Iñigo, Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar.*



## **III. Erakunde zerbitzuak**

### **III. 1. Egoitza**

### **III. 2. Ordezkaritzak**

III.2.1. Donostiakoa

III.2.2. Gasteizkoa

III.2.3. Iruñekoa

III.2.4. Baionakoa

### **III. 3. Azkue Biblioteka**

III.3.1. Azkue Biblioteka zerbitzua

III.3.2. Azkue Biblioteka batzordea

### **III. 4. Argitalpenak**

III.4.1. Argitalpen batzordea


III.4.2. Argitalpenen banaketa zerbitzua



### III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

Hizkuntzaren Akademia den aldetik, euskararen arautzearen eta normaltzearen eremu garrantzitsua dagokio Euskaltzaindiari. Hiru alor lantzen ditu Euskaltzaindiak: batetik Erakundearen barnera begira aritzen dira Zuzendaritza, Batzordeak eta Barne Zerbitzuak; beste alde batetik, badira erakundeei zuzenduak ere: Herri Administrazio, unibertsitate, enpresa publiko, kultur elkarte eta abar; azkenik, edozein herritarri eskaintzen dizkionak ditugu.

Bai egoitzan, bai ordezkarietzan baliabide informatikoak abian jarri dira. Egun Akademia honek egin nahi duen lanerako ezinbesteko tresnak dira horiek.



*Egoitzan, 1999-XII-14an, informatika ikastaroa. Ezkerretik eskuinera: Ricardo Badiola, Jon Artza, Resu Orbe, Pruden Gartzia, Nere Altuna.*

Bestalde, *Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa* abian jartzeko ahalegina ere aipatu behar da. Oinarri sendoak ezarri nahi zaizkio eta horretan aritu da Zuzendaritza.



### **III.1. EGOITZA**

Egoitzaren nondik norakoa azalduko da hemen. Erakundearen administrazio orokorra, zuzendaritzakideen bulegoak, biblioteca-artxiboak eta batzar aretoak osatzen dute egoitza.

#### **Zerbitzuen baliatzea**

Bilboko Plaza Barrian dagoen etxera 5.076 pertsona etorri dira 1999. urtean. Euskaltzaindiaren zerbitzuen baliatzera hurbildu dira gehienak. Egitasmoetan, onomastika alorrekoak izan dira aholku, ziurtagiri eta eskaera gehien ekarri dituztenak. Azkue Biblioteka izan da beste zerbitzu emankor bat.

Astero-astero etengabeko bisita taldeak izan dira Egoitza ikusten eta bide batez Erakundearen berri jakiten.

#### **Aretoaren erabilera**

Areto nagusia kultura erakunde eta elkarteei irekita egon da, hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurrekoetarako. Euskaltzaindiak berak zuzenean antolatu dituzenez gain, Udako Euskal Unibertsitatea, AEK, Euskal Itzultzaile eta Zinpeko Interpretarien Elkarteak, Euskal Idazleen Elkarteak, Bilbo Zaharra Euskaltegia, Bilboko eta Ondarroako Udalak, Gerediaga Elkarteak, garrantzitsuenak aipatzeagatik, erabili dute egoitza. Kontuan izan behar da Bilboren kokagunerik hoberenatarikoa eskaintzen duela Euskaltzaindiak euskalgintzan ari direnentzat.

#### **Zuzendaritzaren kokagunea**

Hilean bi aldiz biltzen da, gutxienez, Zuzendaritza. Egoitzan du bere kokagunea eta Idazkariordeak antolatzen du kudeaketa tokatzen zaion kargudunekin, Euskaltzainburuarengandik hasita. Erakundea gobernatzea dagokio Zuzendaritzari, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne funtzionamenduaren agintea.

#### **Batzorde eta egitasmoen koordinazio zerbitzua**

Eragile teknikaria arduratzen da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz. Egiten diren lanen berri ematen die idazkariorde-kudeatzaileari, Zuzendaritzari eta ezarritako epe-etan Herri Administrazioei.

Eragile teknikaria noizean behin batzordeen bileretara joaten da, bilera agiriak eta txostenak jasotzen ditu eta hauetatik behar direnak Argitalpen eragileari pasatzen dizkio. Egitasmoen ekintza planak eskuratzea eta bateratzea ere haren ardura da; lanen errendapen txostenak burutzea, hileroko batzarretako hizkuntza-gaiak prestatzea, Euskara Batuko batzordearekiko dei eta koordinazio lanean aritzea dira Eragilearen egitekoak.

Herri Aginteekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere Eragile teknikariak burutzen ditu.

## *Albiste Orria*

Barneko informazio-buletina da aldizkari hau. 1999an zehar 41.etik 51.era bitarteko zenbakiak atera dira. Bertan, Erakundearen lanak, bilerak, egitasmoak, erakundearteko harremanak, ospakizunak, jardunaldiak, liburu-aurrezpenak, sari-banaketak, hitzarmenak, akordioak, txosten eta adierazpen garrantzitsuenak jasotzen dira. Aldizkari hau ere Eragile teknikariaren esku dago.

### **Informatika zerbitzua**

Informatika sistemen Teknikariaren lanpostua sortu berri da, berak eramango duelarik zerbitzu hau. Egoitzan kokatua da, baina sare bateratu baten bidez, ordezkartzak, egitasmo eta bulego guztietara hedatzeko jarri da.

### **25 urte Euskaltzaindian lanean**

Urtarrilaren 29ko osoko batzarrean, egoitzan, Euskaltzaindiaren zilarrezko domina eman zaio Juan Jose Zearreta ekonomia eragileari, Euskaltzaindian 25 urte lanean aritu delako. Euskaltzainburuak, zilarrezko domina ematerakoan, omenduak euskararen eta Euskaltzaindiaren alde egindako lan ugariak aipatu ditu. Omenduak, eskerrak emateaz batera, norbera bere lekutik elkar-lanean aritzea opatu die bilduei.



*Egoitzan, 1999-I-29an, 25 urte lanean aritzeagatik Juan Jose Zearretari Euskaltzaindiaren zilarrezko domina ematea. Ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Jean Haritschelhar, Juan Jose Zearreta, Patxi Goenaga, Patxi Altuna.*



## III.2. ORDEZKARITZAK

### III.2.1. DONOSTIAKO ORDEZKARITZA

Ohiko zereginak bete ditu Donostiako ordezkariak, bi direlarik eskatzen erakunde, zaizkion eginkizunak: azpiegitura laguntza eskaini bertan biltzen diren batzordeei, eta zerbitzuak eman hiritar eta elkartei.

#### Bilerak

Erakundearen azpiegiturak hala eskaturik, Donostiako ordezkariak egin ohi dira batzorde-bilera asko, bertoko bulego-idazkariak arduratu direlarik batzorde eta lantaldeei behar den azpiegitura eskaintzen.

Urtean zehar bilera hauek egin dira ordezkariak:

Euskaltzainen osoko batzarra	3
Euskalzaindiaren Zuzendaritza	7
Gramatika batzordea	12
Onomastika batzordea	2
Herri Literatura azpibatzaordea	9
Literatura Ikerketa azpibatzaordea	7
Euskara Batuko batzordea	15
Corpus batzordea	5

#### Beste Erakunde eta jendearekiko harremanak

1. Bidezko da ordezkariak honek Diputazioarekin izan duen harremana azpimarratzea, ez bakarrik orain arteko maila oparoari eutsi diolako, baizik eta premia berrien arabera erantzuten jakin duelako.

Apirilaren 23an izan da ordezkariaren inaugurazioa. Merezitako berritu on bat hartu du bulegoak: batetik, eraikuntza osoa izan da zaharberritua; bestetik, beheko gelako partikuntza ere aldatu da bilera-modura antolatuz; gero instalazio berriak jarri dira. Bulegoaren itxura berria ospakizun bereziz ohoratu da, Diputaziokoak ere bertan zirelarik, Koruko Aizarna Kultura eta Euskara diputatua, buru.

2. Ordezkariak honetatik egin da, halaber, Euskaltzaindiaren ordezkapena zenbait ekintza kulturaletan:
  - Azkoitiko Udaletxean, 750. urtemuga herria sortu zela, martxoaren 12an.
  - Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, *Euskal Herriko II. Inkesta Soziolinguistikoa* argitalpenaren aurkezpena, apirilaren 15ean.
  - Kurtsaleko gonbita, eraikina erakusteko, ekainaren 8an.

- Donostiako Miramar jauregian, EHU-ko ikasturteari hasiera emateko ekitaldia, irailaren 23an.
- Donostiako Miramar jauregian, EHUK Martin Ugalde, Doctor Honoris Causa izendatzea abenduaren 15ean.

### **Barne-lanak**

Kontsulta ugari etortzen da Erregistro Zibiletatik deiturei buruz, eta Izendegiari buruz, kasuistika luzea sortzen delarik izen-deituren berritzearen inguruan. Dei asko jasotzen diren seinale da Telefónica-ren oharra: 003 informazio zerbitzuan, Euskaltzaindiak Donostian duen ordezkartzako telefonoa da deirik gehien jasotzen duenetako bat.

Beste ordezkartzetan bezala, argitalpen zerbitzua bezeroei hurbiltzeko, salgai daude bulegoan Euskaltzaindiaren lanik eskatuena, aldian-aldian ekartzen direlarik Erakundearen argitalpen berriak.

### III.2.2. GASTEIZKO ORDEZKARITZA

#### Akademi lanak

Argitalpen zerbitzurako:

Fray Mateo de Zabala-ren *Sermoiak (II)*. "Euskararen lekukoak" sailean liburukian agertu-ko diren sermoiak birraztertzen eta zuzentzen aritu da bulego Arduraduna.

Aurten ere bulego arduradunak, kudeatzaile eta eragile teknikariarekin batera, parte hartu du Euskaltzaindiaren *Oroitidazkia*-ren erredakzioan eta zuzenketa lanetan.

Prentsa bulegoa eta Jardunaldiak:

Irailean Aramaion egin diren IV. Jagon Jardunaldietako prestaketa lanetan laguntza eman da Gasteizko bulegotik.



*Aramaioko Udaletxean, 1999-IX-26an, herriko seme kutun izendatze-ekitaldian. Ezkerretik eskuinera: Juan Jose Pol (Bizente Goikoetxea Abesbatza-ren zuzendaria), Jose Mari Velez de Mendizabal, Patxi Uribarren, Iñaki Nafarrate, Sabin Salaberri eta Jesus Maria Elejalde.*

Gramatika batzordea:

Gramatika batzordeari azpiegitura zerbitzua eskaini zaio Arabako ordezkarietatik: bilera-deiak, agiriak, txostenak eta bestelako materiala banatuz.

### **Erakundeentzako eta kanporako lanak**

Ziurtagiriak:

Euskaltzaindiaren beste bulegoetan bezala, izen eta deituren agiriak prestatu dira gizabana-koak eskatuta edo Erregistro Zibilek (Arabakoek nahiz kanpokoek) behar izan dutenean. Ponte-izenei dagozkien kontsultak eta eskaera gehienak jatorriz euskal izenak ez direnei buruzkoak izan dira. Deituren agiri gehienak, ordea, euskal grafiara zuzentzeko egin dira.

Hizkuntza-galderak:

Hizkuntzaren erabilerari buruzko kontsulta zehatzak, Gramatika, Onomastika eta Hiztegi-gintzakoak izan dira. Hauek dagozkien batzordeetara zuzendu ondoren, Eragile teknikariaren bi-tartez helarazi dira irizpenak edota erantzunak.

Erakundeari buruzko argibideak:

1999-2000 ikasturte honetan, Gasteizko ordezkarietako bulegoak zabaldu dira, hiriko esko-letako eta institutu-erakundeetako ikasleek gure Erakundearen historia, funtzionamendua eta gaurko lanak ezagut ditzaten. Urritik abendura bitartean 6 talde pasatu dira ordezkarietatik.

### **Udalak**

Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari lotuta dagoen lanen errendapen txostena aur-keztu da Udaletxean.

Gasteizko Kultura zerbitzuak urtero antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko eskaria jaso da ordezkarietatik honetan. Hori dela eta, hiruhilabeteko ikastaro bat antolatu da Ekin eta Jarrai (Euskaltzaindiaren inguruan) izenburuarekin. Hemazortzi hitzalditan Akademiaren historia, anto-laketa eta batzorde desberdinetako lanak azalduko dira.

### **Gasteizko Toponimia lantaldearen kokagunea**

Gasteizko ordezkarietan kokatua dago lantalde hau. Lantalde honek bost ikerlari ditu, eta Gasteizko Udalak eta Euskaltzaindiak sinatua duten hitzarmenari esker egiten ari da ikerlan hau.

### III.2.3. IRUÑEKO ORDEZKARITZA

#### Akademi eta barne lanak

– Victoriano Huiziren *Gramática Bascongada* eta Aingeru Irigarairen mendeurrenak direla-eta, Euskaltzaindiak Etxarri-Aranatzen egindako ekitaldien antolaketan parte zuzena hartu du ordezkari honen. Aipatu beharra dago ospakizun hauetarako, alde batetik Etxarri-Aranazko Udalak emandako babes eta, bestetik, herri honetako Zirikatzen, Gaitero eta Abesbatza taldeen partaidetza.

– Euskaltzain osoen ekaineko bilkura Nafarroan izan da, Etxarri-Aranatzen hain zuzen, aipatutako mendeurrenen ekitaldiekin batera.

– Onomastika batzordeak aurreko bederatzita bilera egin ditu Nafarroan, zortzi Iruñeko ordezkari eta bat Etxarri-Aranatzen. Gainera, herri honetan ospatu dira Gramatika eta Sustapen batzordeen bilera bana eta, horiez gainera, I. Gramatika Mintegia eta II. Toponimia Ikastaroa. Onomastikaren azpiegitura zerbitzurako hainbat lan eta material prestaketa ere Iruñeko ordezkariak bulegoan egin da. Bestalde, urriaren 15ean, Onomastika batzordeak Iruñeko ordezkariak aurkeztu du *Zuberoako herri eta herritarren izendegia* Hego Euskal Herriko hedabideen aurrean.

– Patxi Ondarra euskaltzainak prestatu ondoren, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Polikarpo Iraizozkoaren lanak argitaratzen ari da. Argitaratu berri diren bi liburuetan egin den bezala, hirugarren eta azkenekoa izanen den *Hitz lauako lanak II* liburukia-ren edizio prestaketak ordezkariak bulego arduradunaren laguntza izan du.

– Ordezkariak jasotako eskakizunei zenbait ziurtagiri eta txostenen bidez eman zaie erantzuna. Aipatzekoa da, dena den, Onomastika batzordearen *Euskal Deituren Izendegia* argitaratu zenetik, deituren kontsultak asko murriztu direla. Hizkuntzaren erabilerari buruzko kontsulta zehatzak hartu direnean, dagozkien batzordeei pasatu zaizkie.

#### Harremanak

– Iruñeko Udalarekin 1997an sinatutako hitzarmena berriro ere eguneratu dute, 1999rako, Javier Chourraut alkateak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Iruñeko Udalak 1999an 1.000.000 pezeta (39.200 libera) eman dio Euskaltzaindiari.

– Nafarroako beste zenbait mankomunitate, udal eta kontzejurekin ere, hala nola, Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea, Etxarri-Aranatz, Uharte, Egues, Irurita eta abarrekin, harremanak izan dira, kontsulta mailakoak gehienetan.

– Nafar Parlamentuko Ezker Batuko talde parlamentariak hala eskatuta, informazio bilera bat izan du ordezkariak Isabel Arbonies talde horretako kidearekin.

– Ordezkariak Fernando Pérez de Viñaspre, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendari Nagusiarekin zenbait bilera izan ditu, bi erakundeen arteko gaiez eta euskararen zenbait proiektuz aritzeko.

– Andres Iñigok Euskaltzaindia ordezkatu du lurralde honetako hainbat ekintzatan, besteak beste, San Fermin Ikastolako egoitza berriaren eraikitze ekitaldian eta Udako Euskal Unibertsitatearen hasiera ekintzan. Beste zenbait ekintzatan ere parte hartu du, hala nola, telebista eta irrati emanaldi batzuetan, aldizkari eta prentsa artikulua batzuetan, eta lurralde honetako zenbait

elkarte eta ikastetxetan antolatutako hitzaldietan, Berako Toki-Ona Institutuan eta Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartean, esaterako.

– Ordezkaritzaren bitartez, Euskaltzaindiaren babesa eman zaie Europako Batzordearen aurrean euskararen hobekuntza teknikorako aurkeztu diren Nafarroako bi proiekturi, Ikastolen Federazioarena bata eta bestea Nafarroako Gazteria Kontseiluarena.

– Iruñeko Udalak urtero antolatzen duen literatura lehiaketarako epaimahaiari Patziku Perurena euskaltzain urgazlea izan da Euskaltzaindiaren izenean, eta Jose Mari Satrustegi euskaltzain osoa urte honetako Nafarroa Oinez-en.

## **Bestelakoak**

Euskaltzaindiak parte hartu edo zerikusi zuzena izan duen ekintza hauek dira aipatzekoak:

– Nafarroako ordezkariak, eta honen bitartez Euskaltzaindiaren Jagon Saileko Sustapen batzordeak, Oinarriak deitutako erakunde legeztatuaren proiektuaren berri izan du, non Nafarroan euskararen normalizazioa bermatuko lukeen legeak kontuan eduki beharko lituzkeen oinarriko printzipioak azaltzen diren. Halaber, erakunde honetako arduradunek zenbait punturi buruzko aholkua eskatu diote Sustapen batzordeari eta, aldi berean, aipatutako proiektua gauzatzeko abian jarri dituzten urratsen berri eman diote batzordeari.

– Iruñeko Erregistro Zibilean guraso batzuek euren umeari euskal ponte-izena jartzeko oztopoak direla-eta, ordezkaria eta Onomastika batzorde idazkaria bertan izan dira, jarritako oztopoei buruzko argitasuna azaltzen eta, aldi berean, bulego horretako arduradunei legea bete dezaten eskatzen.

– Nafarroako Gobernuak FM irrati frekuentzien esleipenean, euskararekin eta Nafarroako Euskararen Kontseiluarekin izandako jarrera ikusirik, 1999ko urtarrilean Kontseiluaren gehiengoak dimisioa aurkeztu du, eta gehiengo horrekin batera Jose Maria Satrustegik, Euskaltzaindia ordezkatzeko zuenak.

### III.2.4. BAIONAKO ORDEZKARITZA


Baionako Fakultatean egin du aurten Euskaltzaindiak urtean behin Iparraldean egin ohi duen bilkura, aldi honetan otsaileko bilkura.

Karia horretara, otsailaren 25ean ospatu da lehenik Herriko Etxean eta Jean Grenet jaun auzapezarekin, René Lafon euskaltzain zenaren sortzeko mendeurrena. Jakintsu handi horren artikulua bilduma, Iker sailaren XI. liburua, *Vasconiana* izenburupean Euskaltzaindiak argitaratua, aurkeztu die Jean Haritschelhar euskaltzainburuak areto nagusian bildu diren euskalzale eta kazetariari.

Bestalde, egun berean eta ondoko otsailaren 26an, Euskaltzaindiaren XI. Barne Jardunaldiak egin dira, Baionako Fakultatean.

Apirilaren 5ean Baionako ordezkariak parte hartu du urte guziet bezala Sarako Idazleen Biltzarrean, eta ekainaren 12an bere mahaia jarri du Donibane Lohizuneko liburu azokan.

Urriaren 16an, Mauleko Herriko Etxean, Jean Haritschelhar euskaltzainburuak, Henrike Knörr Onomastika batzordeburuak eta Jean-Louis Davant euskaltzain oso zuberotarrak aurkeztu dute *Zuberoako herri eta herritarren izendegia*. Egun berean, Onomastika batzordea bildu da Maulen.



Baionako ordezkartzan egin diren EGaren azterketek izan dute aitzinako urteetan baino arrakasta handiago: 60 izen emate, 48 gainditze 1998an eta 79 izen emate, 53 gainditze 1999an.

Baionako idazkaritza, aldiz, Euskaltzaindiaren beste bulegoekin eta Iparraldeko kultura erakunde askorekin (Euskal Kultur Erakundea, Ikas, Seaska, AEK, Eusko Ikaskuntza, Euskal Konfederazioa) dituen harremanez eta handik edo hemendik datozkion aholku galdez bestalde jarraiki zaio bere barneko eremuari. René Lafonen liburua –*Vasconiana*– inprimategirako prestatu den bezala iragan urtean, orain Eugène Goyheneche historialariaren Onomastikako tesia burutzen ari da ordezkartzan.



### **III.3. AZKUE BIBLIOTEKA**

#### **III.3.1. AZKUE BIBLIOTEKA ZERBITZUA**

Aurreko urtean zehaztutako irizpideari jarraiki, Euskaltzaindiak berak edo bere edozein baztordek egindako eskariak eguneroko lan arrunt gisa hartzen dira eta, beraz, ez dira hemen zehaztuko, Euskaltzaindiaz kanpokoak baino aipatuko ez delarik (mailegu eta erreprografia zerbitzuetan izan ezik).

#### **Biblioteka eta artxiboa**

Erabiltzaile kopurua: 738 lagun, horietatik 47 artxiboa kontsultatzeko.

Erabiltzaile berriak: 128.

Eskaera bibliografiko arruntak: 1.138 dokumentu.

Barne-mailegu zerbitzua: 277 dokumentu.

Erreprografia zerbitzua: 25.341 fotokopia eta 32 argazki bikoizketa.

#### **Dokumentazio eta informazio zerbitzua**

Bitan banatzen da, eskatutako informazioaren sakontasunaren arabera:

- a) Ahozko kontsulta bibliografiko arruntak: gutxi gorabehera seiehun bat.
- b) Idatzizko kontsulta bibliografiko bereziak: hirurogeita hamazazpi. Horietatik berrogeita hamazazpi partikularrenak izan dira (mota guztietako ikerleek egindakoak) eta hogeitaz, erakunde edo elkarteek egindakoak. Hauek dira idatzizko kontsulta bereziak egin dituztenak:

Euskal Herrikoak:

- EITB
- Eresbil
- Eusko Ikaskuntza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
- Gerediaga Elkartea
- Udalak: Aramaio eta Areatza
- EHU
- UZEI
- Deustuko Unibertsitatea
- Euskal Herria Museoa
- Euskal Fundazioa
- *Euskaldunon Egunkaria*
- Almen Ikastola
- HAEE-IVAP

Euskal Herritik kanpokoak:

- Bigarren Hezkuntzako Institutuak: A Coruña
- Errusiako Estatu Biblioteka (Mosku)
- Editorial Santillana
- National Geographic
- Sono

## Eskurapenak

Liburuak:

Guztira 1.369 liburu sartu dira -dohainekoak, erosiak edo trukezkoak-, horien aurrekontua 3.505.607 pezetakoa izan delarik.

Aldizkariak:

Une honetan Azkue Bibliotekak 1.578 izenburu ditu, horietatik 423 bizirik eta 1.155 hilda. Bizirik daudenetatik trukez 76 hartzen dira, doan 261 eta erosita 86. Azken horietatik 48 harpidetzaren bitartez hartzen dira.

Aurten orotara 38 izenburu berri eta 1.577 ale sartu dira, eta kostuari dagokionez 652.332 pta. erabili dira.

Erosketa bereziak:

Erosketa hauek bereziki aipagarriak dira:

- Julio Cejador y Frauca: *Ibérica* (1926-28)
- George Herelle: *Le répertoire du théâtre tragique: cycles de l'ancien testament...* (1928)
- *Euskalduna* egunkaria (1898)
- *Censo de población de la Corona de Castilla* (XVI-XVII-XVIII. mendeetakoak, 1829, faksimilea)
- *Pro-Universidad Vasca: actuación del Ayuntamiento de Bilbao...* (1932)
- José March: *Salbacioco aingura* (Gregorio Arrueren itzulpena, 1887)
- Tomás de Villacastin: *Oracio mental edo pentsamentuzcoa* (Gregorio Arrueren itzulpena, 1880)
- *Mallarmeren betazalak* (grabatuak) (J. San Martinen dohaintza)

## Azkue Bibliotekako katalogazio zerbitzua

Lehendik katalogatu gabe dauden funtsak katalogatzen jarraitu da. 1999an 4000 dokumentu katalogatu behar ziren. Hauexek dira emaitzak:

1. hiruhilabetean	916 dokumentu katalogatu dira.
2. hiruhilabetean	1.075 dokumentu katalogatu dira.
3. hiruhilabetean	1.879 dokumentu katalogatu dira.
4. hiruhilabetean	1.386 dokumentu katalogatu dira.
Guztira:	5.256 dokumentu katalogatu dira.

Laburbilduz, urtean zehar 4.645 liburu katalogatu dira, aurreikusitakoak baino 645 gehiago, eta, hortaz gain, Txillardegiren bibliografia bereziaren atalean, beste 611 sarrera berri egin dira. Hau da, guztira 5.256 dokumentu. Beraz, kopuruei dagokienez plangintza arazorik gabe betetzeaz gain beste 1.256 dokumentu katalogatu dira. Soberakin honek bi arrazoi ditu: alde batetik, aurrei-

kusitako liburuak baino apur bat gehiago pilatu dira katalogatzeko eta, bestetik, beherago azalduko den bezala, Txillardegiren bibliografia berezi bati ekin zaio, aldizkarietako artikulua ere katalogatuz. Ondorioz, ezin izan dira ohiko zuzenketak burutu, baina espero izatekoa da 2000. urtean zehar egin ahal izango direla, 1995ean hasitako plangintzari amaiera emanez.

## **Bestelakoak**

Georges Lacomberen artxiboa:

Georges Lacomberen artxiboaren digitalizazio-lanek aurrera dihardute, Irargi zerbitzuarekin elkarlanean, 2000. urtearen hasieran bukatuko direlarik.

Txillardegiren bibliografia:

Zuzendaritzaren erabakiz, Txillardegiren idazlanen bibliografia berezi bat prestatzeari ekin zaio, zeinetan jasoko diren idazle honen idazlan guztiak, egunkarietako artikulua salbu. Bibliografia horren bi ale inprimatuko dira paperean, bata Txillardegiri berari emateko eta bestea Azkue Bibliotekan jasotzeko; hortaz gain, *ABK* barruan argitaratuko da Euskaltzaindiaren web gunean. Lana 1999. urtean egitekoa bazen ere, arazo tekniko-informatikoak direla-eta 2000. urte hasieran burutuko da lana.

Euskaltzaindiaren artxiboa:

Euskaltzaindiaren artxiboen antolaketa-lanen barruan, bi urrats garrantzitsu egin dira: Euskaltzaindiaren Artxibo Administrazioaren behin-behineko Gida, eta Karmelo Etxegarai Gelako Gida. Lehenean erakundearen material administrazioak deskribatu dira eta bigarrenean Azkue Bibliotekaren zaintzapean dauden 28 artxibo desberdinak (Odon Apraiz, Pierre Broussain, Jon Etxaide, Norbert Tauer, eta abar).

Eusko Jaurlaritzarekiko elkar-lana:

Eusko Jaurlaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol sailburuordea den Imanol Agoterekin eta Kultura Ondarearen Zuzendaria den Eduardo Estraderekin bilera bat egin da 1999ko martxoan, zeinetan Euskaltzaindiaren ordezkariak Erakunde honen laguntza eskaini dioten Jaurlaritzari Bibliotekonomiaren alorrean. Bilera horren ondorioz Azkue Biblioteka batzordeak onartutako hamazazpi katalogazio-erregela eta hamabi terminologia-zerrenda igorri zaizkio Kultura Ondarearen zuzendaritzari, beraren lanetan baliatzeko. Hortaz gain, elkar-laguntza hitzarmen berezi bat sinatzeko aukera mahaigaineratu da.

## **Talde bisitak**

Hogeita hamar talde izan dira Euskaltzaindiaren Bilboko Egoitza eta Azkue Biblioteka ikusatzeko, guztira 700 bat pertsona. Talde horiei harrera egitea eta ordu beteko bisitaldi gidatua egitea Azkue Bibliotekako langileen kontura joan da. Hauexek dira taldeak:

Euskaltegiak: Ulibarri, Lizardi, Bilbo Zaharra, Mikelats, Santurtziko Udal Euskaltegia, Portugaleteko eta Sestaoko AEK.

Hezkuntza arlokoak: IRALE, Bilboko ICE, Astrabudua, Iurreta eta Portugaleteko Ballonti eta Ellakuria Institutuak, eta Bilboko Pagasarribide eta Santurtziko DBH (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako) ikastetxeak;

Bilboko Emakume Mintegia eta Iruñeko Napartheid.



### III.3.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Batzorde honek, guztira, 7 bilera egin ditu urtean zehar.

#### Egindako lana

Azken urteotan batzordearen lan nagusia euskaraz katalogatzerakoan sortzen diren arazoak aztertzea eta erabakitzea izan da. Aurten ere hori izan da batzordearen lan nagusia. Aurreko urtean erabakitako lan-metodologiari jarraituz, beste sei katalogazio-erregela (12, 13, 14, 15, 16 eta 17.a) eta hiru termino-zerrenda (10, 11 eta 12.a) onartu dira. Horietako batzuek aipamen berezia behar dute:

- 12. katalogazio-erregela: *Munduko hizkuntzei buruzko liburuak katalogatzeko erregela*. Oso erregela garrantzitsua hizkuntzalaritzako liburu ugari duen biblioteca batentzat. Horretaz gain, euskarari buruzko liburuak eta euskalkiei buruzkoak nola katalogatu behar diren arautzen du.
- 13. katalogazio-erregela: *Foruei buruzko liburuak katalogatzeko erregela*. Foruak euskal historian duen garrantziagatik tratatu berezia zor zaio euskal biblioteketan.
- 14. katalogazio-erregela: *Banako egileen sarrera nagusia egiteko erregela*. Banako egileen formen idazkera arautzen du, hots, noiz *Kortazar* eta noiz *Cortázar*, edo noiz *José Agustín* eta noiz *Joxe Austin*. Lan handia eman du, eta oraingoz erabilera guztiak finkatzea oso luzea eta korapilotsua izango da, kasuistika oso zabala delako.
- 15. eta 16. katalogazio-erregelak: *Itzulpenei buruzko katalogazio-erregela* eta *Latin eta greziar pertsona-izenei buruzko katalogazio-erregela*. Bereziki aipatu behar da 15. erregelaren bidez euskarara edota euskaratik itzultako liburu gehien-gehienaren kontrol katalogafikoa lortuko dela, hizkuntzaren arabera (errusieratik itzultakoak, italieratik, etab.).
- 17. katalogazio-erregela: *Egile korporatiboen sarrera nagusia egiteko katalogazio-erregela*. 14. erregelaren segida eta osagarria da. Erregela honen bidez erakunde eta elkarte askoren euskal izena finkatzen dira.

Terminologia-zerrendei dagokienez, guztira hiru zerrenda eta 385 sarrera onartu dira. Hona hemen adibide batzuk:

- Hainbat hizkuntza-izen: *Avestera, Berberiera, Bantu hizkuntzak, Bahasa Indonesia* (hizkuntza), *Magindanoera*, etab.
- Hizkuntzei dagozkien azpisarrerak: *Euskara – Adberbioa – Euskalkiak – Gramatika*, etab.
- Foruen izenak: *Burdinolen Forua, 1519; Lapurdiko Kostumak, 1514; Nafarroako Foru Murriztua, 1528*; etab.
- Bibliotekonomiako zenbait termino: *Euli-anka, Gurutze latinoak, Markila laurdeneko neurria, Arabiar zenbakera*, etab.

Horrezaz gain, azpimarratu behar da ABK (Azkue Bibliotekako Katalogoa) egitasmoarekin lotutako bost txosten berezi eztabaidatu direla, eztabaida horien ondorioak erregeletan islatu direlarik. Hauexek dira txosten horiek: D'Abbadie, Abbadia, Abadia eta enparauak; Euskal deituren grafia zenbait komunikabidetan; Euskal deituren sarrera nagusia egiteko irizpideak; Salbuespenak egiteko irizpideak eta 17. katalogazio-erregelaren eranskina: zenbait adibide. Txosten horien emaitzak laburbilduz, Azkue Bibliotekako zuzendariak "Azkue Bibliotekako Katalogoa (ABK):

euskal deituren sarrera nagusiez” izeneko txostena osatu du, 2000. urtean *Euskera* agerkarian argitaratuko dena.

### **Bestelako lanak**

Batzordeak beste lan hauek ere burutu ditu urtean zehar egindako bileretan:

- UPV/EHUko Euskararen Erabileraren Normalizaziorako II. Plangintza. EHUko Euskara Errektoreordearekin izandako elkarrizketen ondorioz, plangintza horretan aipamen berezia egin da Unibertsitateko bibliotekaren katalogoa elebiduntzearen beharraz. Horretarako, Euskaltzaindiaren laguntza eskatu da, Azkue Bibliotekaren bidez. Dena dela, plangintza garatu ahala hitzartuko da zein den Euskaltzaindiaren eginkizuna.
- Azkue Biblioteka batzordea. Barne txostena: 1999ko plangintza. Txosten honen helburua hau da: kide berriak batzordearen lan-metodologiaz eta helburuez informatzea eta, bide batez, urteko plangintza eztabaidatzea.
- Karmelo Etxegarai gelako gida aurkeztu eta eztabaidatu da. Gida horretan Azkue Bibliotekako artxiboaren funtsak deskribatzen dira.

### III.4. ARGITALPENAK

#### III.4.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Argitalpen batzordeak, 1999an zehar, bi bilera egin ditu Jean Haritschelhar euskaltzainburen gidaritzapean. Ondorioz, Euskaltzaindiaren Edizio Zerbitzuak, ondoren zehazten diren argitalpenak bideratu eta kaleratu ditu, argitalpen Eragilearen ardurapean:

##### 1. *Euskera (1998, 2)*

Liburuki honetan 1998ko ekainetik urrira arteko batzar-agiriak, hizkuntza-arauak, hitzarmenak, irizpenak, txostenak, jardunaldiak, ospakizunak eta berriak bildu dira. Guztira 287 orrialde.

##### 2. *Euskera (1999, 1)*

Liburuki honetan 1998ko azarotik 1999ko martxora arteko batzar-agiriak, V. Herri Literatura Jardunaldiak, hizkuntza-arauak, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena, EUDELen eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena, irizpenak, txostenak hizte-gigintzaz, gramatikaz, onomastikaz..., BBK eta Euskaltzaindiak antolaturiko Azkue sari-emankizuna, hilberri-txostenak, liburu-aurkezpenak eta Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia bildu dira. Guztira 796 orrialde.

##### 3. *Euskaltzaindiaren Arauak*

Hauek dira 1999an zehar, 2. karpetan, XVI, XV eta XVI. sortetan argitaratu diren hizkuntz arauak:

90. Hiztegi Batua: *matrize - mintzura*
91. Hiztegi Batua: *minuet - nahastura*
92. Zuberoako herri izendegia
93. Hiztegi Batua: *nahi - ohian*
94. Hiztegi Batua: *oihanbide - orburu*
95. Hiztegi Batua: *ordain - ortopediko*
96. Hiztegi Batua: *ortozik - pasmo*
97. Hiztegi Batua: *paso - pikaldi*
98. Hiztegi Batua: *pikante - postu*
99. Zuberoako herri eta herritarren izenak
100. Hiztegi Batua: *postura - santu*
101. Hiztegi Batua: *santugile - soprano*
102. Hiztegi Batua: *sor - suziri*

##### 4. *Euskaltzaindiaren 1998ko Oroitidazkia*

Urte amaieran kaleratu da *Euskaltzaindiaren 1998ko Oroitidazkia / Memoria 1998 / Mémoire 1998* izeneko liburua. Guztira 340 orrialde ditu. Lehen aldia da urteroko liburu hau hiru hizkuntzatan argitaraten dena: euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez.

5. *Zuberoako herri eta herritarren izenak*

*Euskera*, 1999 (1-2) zenbakiaren separata da; 33 orrialde.

6. *Orotariko Euskal Hiztegia:*

XII. liburukia (*Mak-Oal*); 932 orrialde eta 9.552 hitz-sarrera desberdin ditu.

7. *Ohiko euskal mintzamoldeen ANTOLOGIA*

186 orrialde. Dialektologia-Atlasgintza batzordeak prestatutako argitalpena. 145 herritan Atlaserako egin diren inkestetatik minutu eta erdiko lagina eskaintzea du helburu argitalpen honek. CDetan entzungo diren testuak liburuan argitaratu dira: I. CDan Bizkai-Arabakoak, II. CDan Gipuzkoakoak, III. CDan Nafarroa-Lapurdikoak, IV. CDan Nafarroa Beherea eta Zuberoakoak.

8. *Toponimia Medieval en el País Vasco (P-Z)*

Sail horretako laugarren -eta azken- liburukia eta Onomasticon Vasconiae bildumako 20.a; 588 orrialde. Ángeles Líbanok prestatua.

9. *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak – V: Mendeko Perpausak (I)*

500 orrialde. Menderakuntzari buruz Gramatika batzordeak egin duen lehen liburukia da hau. Liburu honetan zenbait perpaus mendeko aditz jokatudun aztertu dira, orain arteko gramatiketan nekez aurki daitekeen sakontasunez aztertu ere: aditz jokatudun perpaus erlatiboak, osagarriak, konparaziozkoak eta ondoriozkoak biltzen ditu argitalpenak. Ondorengo bi liburukietarako utzi dira gainontzeko perpaus mendeko jokatuak eta jokatugabe guztiak

10. *Morfología del verbo auxiliar bajo-navarro oriental* (tomo I)

432 orrialde. Egilea: Pedro de Yrizar. Liburu honetan Amikuze eta Garaziko azpieuskalkiko aditz-formak biltzen dira, tokian tokiko ñabardurekin: Garazikoa bertakoa, Ekialdekoa, Erdialdekoa, Mendebaldekoa, Oztibarrekkoa eta Landibarrekkoa.

11. *Vasconiana*

Iker saileko 11. zenbakian, René Lafon euskalari handiaren “lan hautatuak” argitaratu dira, 898 orrialdeko liburu sendoan. Euskararen ikerle frantziarrak euskarari buruz idatzi zituen artikululu sakonenak jasotzen dira, euskal hizkuntzalaritzari René Lafonek egin dion ekarpen bikainaren aitortpen gisa.

12. *Argitalpenen katalogoa*-ren eranskina

1997tik 1999ra argitaratutako 25 liburuen berri ematen duen triptikoa da.

**Saritutako lanen argitalpena**

13. *Narrazioak eta olerkiak*

1998ko R. M. Azkue Saria. Sari hori irabazitako idazlanak biltzen dira liburu honetan. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak urtero antolatzen duten sari hori gazteentzat da, batetik 10-13 urte bitartekoentzat eta bestetik, 14-17koentzat. 160 orrialdeko liburu honetan hamalau narrazio eta hamar olerki eskaintzen dira.



14. *Euskaldunak, liberalak eta komunitatezaleak*

Jon Sudupe Martija. 1998ko Mikel Zarate saiakera saria; 176 orrialde. Liberalismoaren eta komunitarismoaren alde onak eta txarrak azaldu ondoren, bi mutur horien arteko erdibidea bilatu nahi du idazleak. Unibertsalismo liberala eta norberaren komunitatearekiko atxikimendua bateratzen saiatzen da. Liberalismoaren balioak bere egin eta euskal komunitate ezberdinduari tinko eutsi zioten euskal liberal fueristen jokabidea jarraibidetzat hartuz, euskaltasun liberal eta komunitatezalearen aldeko aldarrikapena egiten du.

15. *Jon gurea, Parisen hatzana*

Juan Karlos del Olmo Serna. 1998ko Toribio-Altzaga antzerki-saria; 88 orrialde. Antzerkian honen bitartez Jon Mirandek (1925-1972) bere burua hil aurreko ustezko azken orduak modu dramatizatu eta poetiko batean berreraiki gura izan ditu egileak. Euskal Herritik kanpora bizi, hil eta euskaldun askorentzat gizon gaitzesia izandako idazlearen aldeko eta aurkako pertsonaiak ageri dira hil aurreko eszenatokian, haren Parisko ganbara batean.

16. *Ibaia euri-erasotan bezala*

Jose Luis Padrón Plazaola. 1998ko Felipe Arrese Beitia olerki-saria; 72 orrialde. Maitemina, amodioa da olerki-liburu honen gaia. Denboraren ibai etengabearen halabeharrez murgildu eta, bizitzan bezala, ibaiak jasaten dituen egoera guztiz aldakorretan euriaren dirdira eta etsipena azaleratzen dira. Ibaiko urak bezala darama maitasun-grinak hara eta hona olerkaria.



### III.4.2. ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

#### Argitalpen salmenta

Banaketa:

Euskaltzaindiak argitalpenen banaketa gehienbat banatzaileen bitartez egiten du. Hala ere *Euskaltzaindiaren Arauak* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan, harpidetza sistema erabiltzen du. Ondorioz argitaletxeekiko bezeroen harremana zuzenagoa da.

*Euskaltzaindiaren Arauak*-en harpidedunak 2.240 dira. 1998an, argitalpen honen 1. karpetan (1-75) CD-ROM formatoan argitaratu zen eta 1999an hauetariko 76 saldu.

Gainerako argitalpenei dagokienez, liburudendei 227 argitalpen saldu zaizkie, banatzaileei 2.185 eta gizabanakoei 253.

Ohiko salmentekin, Durangoko Azoka barne, eta *Euskaltzaindiaren Arauen* zein *Euskera* agerkariaren harpidetzekin lortutako diru emaitza 16.846.551 pezetakoa izan da.

Merkataritza ikuspegia:

Gehien saldu diren argitalpenak jarraikoak izan dira: *Euskal Deituren Izendegia*, *Oinak*, *Voces Alavesas*, *EGLU V: Mendeko Perpausak (I)*, *Euskaltzaindiaren Arauak (1-75) CD-ROM-ean*, *Euskal Gramatika Laburra* eta *Cancionero Popular Vasco (I-II)*.

Argitalpen salmentaren kokapen geografikoaz esan behar da, gehientsuenak Euskal Herrian saltzen direla, % 99 eta % 1 baino ez Euskal Herritik kanpo.

Aurreko urtearekin konparatuz gero, % 1,6 gutxiago saldu da. *Euskaltzaindiaren Arauak* argitalpenaren harpidetzak haundituz doazen arren, aurten iaz baino harpidetza berri gutxiago izan dira. Bestalde, azken urteetan *Euskera* agerkariaren harpidetzek murrizteko joera izan dute. 1999 urte bukaeran 300 harpidedun inguru ditugu; hauetatik 143 *Arauen* harpidedunak ere badira.

Ohiko salmentetan, ordea, igoera nabarmena izan da. Zergatia, argitalpen berrien erakargarritasunaz gain, hauekiko burutu diren eskaintza berezietan ere aurki dezakegu: alde batetik Arabako liburudenda guztiei *Voces Alavesas* argitalpena eskuratzeko aukera eman zaie, argitalpen honi buruzko informazioa bidaliaz. Erantzuna ona izan da, Euskaltzaindiak Arabako liburudendetan 152 ale zuzenean saldu baititu.

Bestalde azaroaren bukaeran eta abenduaren hasieran, Euskal Herriko liburudenda guztietara eta *Euskera* eta *Arauen* harpidedunei, argitaratu berri eta argitaratzeko zeuden argitalpen biren eskaintza berezia helarazi zaie, alegia: *EGLU V: Mendeko Perpausak (I)* eta *Ohiko Euskal Mintzamoldeen Antologia*.

#### Dohaineko banaketa

Argitalpen Banaketa Zerbitzuak, 1999an, 1.911 ale banatu ditu, dela erakunde ofizialei, dela liburuen egileei, kultur elkarteei, etab.

Truke-harremani dagokienez, *Euskera* agerkaria 91 erakunde eta instituziorekin trukutzen da, hauetatik 42 Euskal Herrikoak eta 49 kanpokoak. Hauetaz gain beste hainbat erakundetara doan helarazten da.

## **Azokak**

Durangoko XXXIV. Euskal Liburu eta Disko Azoka:

Durangoko Azoka abenduaren 3 eta 8 bitartean izan da. Euskaltzaindiak bi estand izan ditu. Aurten, antolatzailea den Gerediaga Elkarateak, editoreei kontsulta egin ondoren, argitalpen aurkezpenik ez egitea erabaki du. Hala ere Euskaltzaindiak zenbait argitalpen berri eraman ditu bertara:

1. *Vasconiana: René Lafonen lan-hautatuak*. IKER 11.
2. *Urretxu eta Zumarragako toponimia*. Onomasticon Vasconiae, 18.
3. *Toponimia medieval en el País Vasco*. Onomasticon Vasconiae, 19.
4. *EGLU V: Mendeko Perpausak (I)*
5. *Voces alavesas* (Berrargitalpena)
6. *Narrazioak eta Olerkiak, 1997*

Argitalpen hauetaz gain azken 2 urteetako argitalpenen berri ematen duen diptikoa ere kale-ratu du Euskaltzaindiak azokarako. Baita, argitalpenen zabalkundea suspertu nahirik, hainbat komunikabide eta aldizkari espezializatutan Akademiaren argitalpen berrien propaganda eta informazioa ezarri ere.

Aurtengo Azokaren berrikuntza garrantzitsuenetariko bat Azokaren digitalizazioa izan da, argitalpen guztiak eta beraien ezaugarriak Internet sarearen barruan sartuz. Euskaltzaindiko argitalpenak ere hor izan dira eta horretarako moldatze eta osotze lana burutu behar izan da.

Azoka honetan, Euskaltzaindiak, urteko argitalpenak aurkeztu eta gainontzeko argitalpenak erakutsi nahi izaten dizkie bisitariei. Helburu nagusia jarraikoa izanik ere, salmentak bultzatzeko baliatzen da azoka hau. Ildo honi jarraituz, bertan 293 argitalpen saldu dira eta 250 banatu, hauetatik gehientsuenak Euskaltzaindiaren argitalpen katalogoa.

Beste zenbait azoka:

Euskaltzaindiaren zerbitzu hau, Durangotik aparte, Donibane Lohizunen izan da euskal liburu eta disko Azokan, eta “Araba Euskeraz”-eko aurtengo edizioan, La Puebla de la Barcan ere izan da fisikoki. Bestalde Euskal Herrian izan diren beste zenbait liburu eta disko azokatan izan ez arren, gure argitalpenak banatzaileen bitartez hainbat tokitan izan dira salgai, alegia: Bilbo, Donostia, Gernika, Hondarribia, Tolosa, Lekeitio ...

## **Gordailua**

Euskaltzaindiak Etxebarri herrian daukan liburu-gordailuak, besteak beste bi funtzio nagusi betetzen ditu:

*Saltzeko liburuen gordailua:*

1998an gordailuan bildurik dauden argitalpen guztien inbentarioa egin zen. 1999an inbentario honi jarraipen zehatza egin zaio. Baita ere gordailuaren txukuntze eta berrantolaketa lanek jarraitu dute, gordailuari egituraketa berri eta egokiagoa emanez.

*Artxiboa:*

Erakundearen Artxiboa, betetzen duen funtzioaren arabera, bi alorretan bana daiteke :

– Barne-artxiboa: Euskaltzaindiak, urteetan zehar bildu, landu eta ekoiztu duen dokumentazio sailkatua gordetzeko erabiltzen dena.

– Kanpo-artxiboa: Kanpoko erakunde, elkarte, talde eta abarri erosiz, trukaturik zein dohainik jasoz, bildu diren material sailkatuen gordetegia, alegia, liburukiak, aldizkariak, egunkariak, posterrak, eta abar gordetzeko erabilia. Kanpo-artxiboari dagokionez, 1999an, gordailuan zeuden Euskaltzaindiaren bibliotekako egunkarien eta aldizkarien hemerotekarekiko berrantolaketa lanak aurrera eramanez dira.



## **IV. Aurrekontuak**

**IV. 1. 1999. urteko balantzea**

**IV. 2. Informatizatze ezarpena**





## IV. AURREKONTUAK

### IV.1. 1999. URTEKO BALANTZEA

Euskaltzaindiak, Herri Agiteekin sinatua duen III. Hitzarmenak eskatzen dion bezala, irailaren 15a baino lehen aurkeztu behar dizkie hurrengo urteko Aurrekontu Arrunta eta, baita ere, Egitasmo/Batzordeena ere. Eta hala egin zuen Instituzio honek 1999. urterako 382.425.679 pezetako kopurua zuen Aurrekontua aurkeztuaz. Aurrekontu hau neurtua eta esku arteko ekintzei aurre egiteko adinakoa gertatuko zela bazirudien ere, urtearen joanean gertatzen diren xahupenak direla eta, urte amaierako Kontu Errendapenean ikus daitekeen kopuru orokorra 413.092.400 pezetakoa izan da.

Begiz jotako kopurua gainditze honen zergatia, aurreko gure Instituzioak abian jarri ahal izan duen informatizatzeko orokorra gauzatzeko plangintzan oinarritzen da. Egia esan, Euskaltzaindiak prest zuen Instituzioaren informatizatzeko orokorra gauzatzeko plana, baina horretarako beharrezkoa zen diru-kopurua kontuan izanik, urteka eta poliki-poliki gauzatzea espero zen. Zorionez, 1999ko ekaina aldera, Herri Aginteen dirulaguntza bereziei esker, bi urtetan burutzea lortu da. Ekintza berezi honi buruzko xehetasunak *Oroitidazki* honen beren beregiko atalean ikus daitezke.

Aurreko urteetan aitortu dugunez eta Euskaltzaindiaren sortzetik, gure Aurrekontuaren diru-sartze nagusiek Herri Administrazio desberdinetan dute iturburua: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioak, Hezkuntza eta Kultura Ministerioa, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra eta abar.

Ezin ahantzizkoak dira, bakoitza bere mailan, Gasteizko Udala, Aurretan Bai, BBK, BBVA eta Kutxa Fundazioak, Euskadiko Kutxa, Euskal Herriko Unibertsitatea eta bestelako diruiturri pribatuen laguntzak.

Egia esan, ezinbestekotzat jotzen du Euskaltzaindiak finantziabide pribatuen babesak lortzea eta, aurrera begira, bereziki landu beharreko alorrak gertatuko zaizkio.



## 1999. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

<b>DIRUSARTZEAK</b>		<b>413.092.400,-</b>
1. Salmenten itzulketak		(569.217)-
2. Ustiaketarako laguntzak		289.974.515,-
- Hezkuntza Ministerioa	115.000.000,-	
- Eusko Jaurlaritza	99.784.880,-	
- Nafarroako Gobernua	17.669.900,-	
- Arabako Foru Diputazioa	7.700.492,-	
- Bizkaiko Foru Diputazioa	28.030.593,-	
- Gipuzkoako Foru Diputazioa	17.669.900,-	
- Iparraldeko Herri Aginteak	2.500.000,-	
- Udalak	1.618.750,-	
3. Ustiapenerako bestelako laguntzak		35.756.700,-
- Ustiapen helburutueterako lag.	32.934.450,-	
- Bestelako laguntzak	822.250,-	
- Argitalpenetarako laguntzak	2.000.000,-	
4. Kudeaketa sarrerak		23.318.021,-
- Salmentak	16.846.551,-	
- Matrikulak	165.035,-	
- Jabetza ondoriozko sarrerak	3.391.700,-	
- Ziurtagiri, irizpen, txostenak	39.000,-	
- Bestelako zerbitzuak	2.875.735,-	
5. Finantza sarrerak		6.786.283,-
- Korrituak	17.641,-	
- Informatizaziorako laguntza	6.759.512,-	
6. Ibilgetu mozkinak		13.926.098,-
7. Eskuratu beharreko informatizaziorako lag.		43.900.000,-

## 1999. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

<b>DIRU IRTETEA</b>		<b>413.092.400,-</b>
1. Ibilgetu materiala		63.330.281,-
2. Kanpo zerbitzuak		58.106.351,-
- Ikerketa eta garapen gastuak	23.943.319,-	
- Alokatzek	1.304.699,-	
- Konponketak eta zaintzek	6.204.623,-	
- Zerbitzu profesionalak alokatzea	6.568.636,-	
- Garraioa	2.047.431,-	
- Aseguruak	681.699,-	
- Banku zerbitzuak	1.277.680,-	
- Zabalkunde gastuak	1.659.261,-	
- Horniketak	13.661.466,-	
- Bestelako zerbitzuak	757.537,-	
3. Batzorde eta egistasmoak		136.151.698,-
- Euskara Batua	2.104.424,-	
- Hiztegi Batua	7.777.353,-	
- <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i>	63.161.343,-	
- Gramatika	3.408.479,-	
- Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa	23.106.037,-	
- Onomastika	15.354.380,-	
- Herri Literatura	946.840,-	
- Literatura Ikerketa	2.138.593,-	
- Jagon	1.224.074,-	
- Azkue Biblioteka	16.565.175,-	
- Lexiko Irizpeen Finkapena	365.000,-	
4. Argitalpen bereziak		14.730.840,-
5. Zergak		983.019,-
6. Gizababakoen ordainketak		130.588.518,-
7. Finantza gastuak		579.386,-
8. Ibilgetu galerak eta aparteko gastuak		46.852,-
9. Amortizazio zuzkidurak		7.921.471,-
10. Hornidurentzako zuzkidurak		653.984,-

## IV.2. EUSKALTZAINDIAREN INFORMAZIO SISTEMA BERRIAREN EZARPENA

Barne-lanak eta kanporako zerbitzuak hobetu eta bikaindu nahian, informazio sistema berri baten egitasmoa jarri du abian Euskaltzaindiak aurrean. Aurreko urtean landu zen egitasmo hori eta 1999an burutu da hein handi batean.

Hona hemen informazio sistema honekin bete nahi izan diren helburuak:

- Barne-sarearen bidez Euskaltzaindiaren Bilboko egoitza eta Baiona, Donostia, Gasteiz eta Iruñeko ordezkaritzak lotzea. Halaber, *Orotariko Euskal Hiztegiaren* eta Euskal Herriko Hizkuntza Atlasarena lotzea. Lantalde hauez gain batzorde eta egitasmo desberdinetan lanean ari diren euskaltzain eta batzordekideei ere elkarlana erraztea.
- Euskaltzaindiaren lanetarako interesgarri eta beharrezkoa gerta daitekeen informazio guztia bildu eta, sarrerarako baimen desberdinen bidez, edozein gizabanakori harremanak sortzeko aukera eman. Era berean, lankide desberdinen arteko informazio-trukaketa ere ziurtatzen da.
- Zaharkituta eta gaundituta gelditu diren aplikazioak eta tresneria aldatzea.

Ezari den zerbitzariari gagozkiola, sistema irekia da eta Windows-NT sistema eragileaz baliatzen da. Komunikazio tresna modura TCP/IP erabiltzen da eta lanpostuak Windows sistema grafikoaz hornituta daude. Egitura honekin hau ziurtatzen da: beharizan informatikoei erantzun azkarra ematea; orain arteko informazio guztia bateratu eta baliatu ahal izatea, lanpostuetan posta elektronikoa eta gizabanakoentzat datubaseak ezartzea, sistemaren segurtasuna bermatzea, infor-




*Egoitzan, 1999-XII-17an, Euskaltzaindiaren web gunearen aurkezpenean. Ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Josune Ariztondo, Euskadi Buru Batzarreko idazkaria eta Gotzon Lobera, Bizkaiko Foru Diputazioko euskera sustapenerako zuzendaria.*

mazioaren erabilpenerako malgutasuna eta erraztasuna lortzea, talde-lana, bideo-hitzaldiak eta abar txertatzeko aukera irekia izatea.

Honez gain, dokumentuak aurkitzeko oinarrizko tresnaren bidez (Erlaziozko Datu Base Dokumentalaren bidez) corpus desberdinen informaziorako bideak ireki dira eta posta elektronikoa eta Internet-en bidez interesgarri gerta daitezkeen zerbitzariekin loturak eskaintzen dira.

Azkenik, Web gunean Euskaltzaindiaren zerbitzu guztien eta erakundeari buruzko informazioa eskaintzen da.

**Eranskina: Euskaltzaindiaren informatika eta komunikazio sistemaren arkitektura**







## **V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak**

**V. 1. EAEko eta Nafarroako Herri Aginteak eta Euskaltzaindia**

**V. 2. Udalak**

**V. 3. Euskal Herriko Unibertsitatea**



## **V.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKOAK, NAFARROAKO HERRI AGINTEAK ETA EUSKALTZAINDIA**

### **Urteko protokolo eranskina**

Urteko protokolo eranskina 1999ko urtarrilaren 4an sinatu da Herri Administrazio eta Euskaltzaindiaren ordezkarien artean. Urtean zehar Akademiak egingo dituen lanak jasotzen dira bertan, eta ordainez, Herri Administrazioek zenbat diru emango duten eta zertarako. Dokumentua hauek sinatu dute: Josune Ariztondo Akarregi, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak; Fernando Perez de Viñaspre, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak; Mikel Mintegi Areitioaurtena, Arabako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara diputatuak; Tomas Uribeetxebarria Maiztegi, Bizkaiko Foru Aldundiaren Kultura diputatuak; Koruko Aizarna Rementeria, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura eta Euskara diputatuak; eta Jean Haritschelhar Duhalde euskaltzainburuak.

### **Jarraipen batzordea**

Aipatutako agintariek eta euskaltzainburuak 1995eko urrian sinatu zuten bost urteko iraupena duen II. Hitzarmena. Hitzarmen hori urtero sinatzen den protokolo edo eranskinean gauzatzen da, eta horren segmentua egiteko biltzen da Jarraipen batzordea, honako kide hauek osotua: Herri Administrazioetatik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko zuzendaria; Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Kultura diputatuak; Euskaltzainditik, euskaltzainburua eta idazkaria botoarekin eta buruordea, diruzaina, idazkariorde-kudeatzailea eta ekonomia eragilea. Aurten behin bildu da batzorde hau:

- 1999ko abenduaren 4an bildu da, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailorde-tzan. Gai hauek jorratu dira:
  1. Batzorde Teknikoak prestaturiko txosten honen azterketa: a) Euskaltzaindiaren 1998ko lanak eta diru-kontuak eta 1999ko lehenbiziko hiruhilabeteko lanei buruzkoa; b) 1999ko lehen sei hilabeteetako lanen mamikuntza eta diru-kontuak, eta 2000. urterako egitasmoak eta aurrekontuak.
  2. Euskaltzaindiaren informatizazioaren gaur egungo egoera. Lanen aurkezpena noiz eta nola egin.
  3. Euskaltzaindiaren eta EUDELen arteko lankidetzaren hitzarmena.
  4. Informatizaturiko corpusen erabilera arautzeko prozedura (1999ko protokoloan VI. Hitzarkinaren 4. puntuan jasoa).
  5. Datozen urteotarako hitzarmen marko berria era 2000. urteko hitzarmen erantsia (protokoloa).

### **Batzorde Teknikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko bilerak**

Hitzarmenaren Batzorde Teknikoa, Hitzarmenaren jarraipen-lanean aritzen da. Une honetan hiru teknikariek osatzen dute jarraipenerako batzorde hau: Joseba Alcalde, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailekoak; Koro Urkizu, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzakoak eta Joseba Erkizia, Gipuzkoako Foru Diputaziokoak;

Euskaltzaindiaren aldetik, Juan Jose Zearreta ekonomia eragileak eta Pello Telleria eragile teknikariak parte hartu dute batzorde honekin izandako harremanetan.

Batzorde Teknikoak urtean zehar bi bilera egin ditu Euskaltzaindiko ordezkariekin, eta gai hauek izan dira hizpide nagusiak harreman horietan:

- Batzorde eta egitasmoen 1998ko laugarren hiruhileko errendapen-txostenak aztertu dira banan-banan.
- 1998ko urte osoko errendapen-txostenak.
- 1999ko lehen eta bigarren hiruhiletako errendapen-txostenak.
- Euskaltzaindiaren eta EUDELen arteko hitzarmenaren berri eman da.
- Batzorde eta egitasmo batzuen 1999ko errendapen-txostenei buruzko informazio osagarria.
- Batzordeen eta egitasmoen 2000ko lan-programak.

## V.2. UDALAK

Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako hiriburuetakako udalekin izan ditu harreman bereziak Euskaltzaindiak. Gasteiz eta Iruñekoei dagozkienak, lurralde ordezkarietzako ataletan garatzen dira.

Iparaldeko herri andana batek, Euskaltzaindiaren sostengurako bere aurrekontuetatik diru-laguntza eman du.

Honezaz gainera, udal askorekin banan-banako harremanak izan ditu Euskaltzaindiak, onomastika, hiztegi, gramatika eta euskalkieiei buruzko kontsultak argitzeko.

### EUDEL – Euskaltzaindia

EUDELek (Euskadiko Udalen Elkarteak) eta Euskaltzaindiak 1999rako lankidetzaz hitzarmena sinatu dute martxoaren 15ean, EUDELen Bilboko egoitzan. Hitzarmena, Jose Maria Gonzalez Zorrilla EUDELeko elkarteburuak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak sinatu dute. Hitzarmen hau 1999ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra artekoa da. EUDELek bost milioi peze-ta (196.078 inguru libera) eman dio Euskaltzaindiari aurreko lau zatitan. Hitzarmen honen xedea, Euskal Autonomia Erkidegoko herri, auzo eta kaleen izenak normalizatzeko datu-basea sortzea da. Ondoren, hitzarmen hau betetzeko, toponimia lantaldea sortu du Euskaltzaindiak. Lantalde hori Mikel Gorrotxategi, Amaia Usabiagak eta Elena Martinez de Madinak osatzen dute.



*EUDELen Bilboko egoitzan, 1999-III-15ean, EUDELen eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmena sinatze-ekitaldian. Eserita, ezkerretik eskuinera: José María Gonzalez Zorrilla, Jean Haritschelhar, Josune Ariztondo. Zutik, ezkerretik eskuinera: Jose Luis Lizundia, Mikel Gorrotxategi, Jose Antonio Arana Martija, Henrike Knörr.*



### V.3. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Euskal Herriko Unibertsitateak, Euskaltzaindiarekin sinatua duen hitzarmenaren arabera, 8.000.000 pezeta (313.725 libera) jarri ditu. Honi esker honako argitalpenen kostuaren %50 finantziatu ahal izan da:

- *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren corpora CD-ROMean argitaratzea.
- *EGLU-V: Menderakuntza* (Mendeko perpausak-1) argitaratzea.
- *Morfología del verbo auxiliar vasco oriental (I)* argitaratzea.
- *Hitz elkarketa / 2*-ren prestaketa.

Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren hitzarmenaren Jarraipen Batzordea martxoaren 25ean eta abenduaren 2an bildu da egoitzan. Bilera horietan, hitzarmen honen babesean 1999an egitekoak diren ekintzak proposatu dira. Hauek bildu dira:


- Euskal Herriko Unibertsitateetik: Henrike Knörr, Miren Azkarate eta Iñaki Perez Iglesias.
- Euskaltzainditik: Jean Haritschelhar, Patxi Goenaga, Jose Antonio Arana Martija eta Ricardo Badiola.



*Egoitzan, 1999-XII-2an, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Euskaltzaindiaren arteko Jarraipen batzordearen bilera. Ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Jose Antonio Arana Martija, Patxi Goenaga, Iñaki Perez Iglesias, Miren Azkarate, Henrike Knörr.*









**VI. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia /  
Organigrama y directorio de Euskaltzaindia /  
Organigramme et répertoire d'Euskaltzaindia:**

**VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak /  
Relación de académicos y cargos /  
Listes des académiciens et des responsables**

**VI.2. Batzordeen zerrendak /  
Comisiones académicas /  
Commissions de travail d'Euskaltzaindia**

**VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama /  
Organigrama de la Real Academia de la Lengua Vasca /  
/ Euskaltzaindia  
Organigramme d'Euskaltzaindia**

**VI.4. Bulego helbideak /  
Directorio /  
Répertoire**



**VI.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK /  
RELACION DE ACADÉMICOS Y CARGOS /  
LISTES DES ACADÉMICIENS ET DES RESPONSABLES**

**EUSKALTZAIN OSOAK / ACADÉMICOS DE NÚMERO / ACADÉMICIENS TITULAIRES**

Patxi Altuna  
Jose Antonio Arana Martija  
Miren Azkarate  
Pierre Charritton  
Jean-Louis Davant  
Xabier Diharce "Iratzeder"  
Patxi Goenaga  
Jean Haritschelhar  
Andres Iñigo  
Xabier Kintana  
Henrike Knörr  
Emile Larre  
Juan Mari Lekuona  
Beñat Oihartzabal  
Patxi Ondarra  
Txomin Peillen  
Pello Salaburu  
Juan San Martin  
Ibon Sarasola  
Jose Mari Satrustegi  
Andres Urrutia  
Luis Villasante (†)  
Patxi Zabaleta  
Antonio Zavala

## ZUZENDARITZA / JUNTA DE GOBIERNO / DIRECTION

*Jean Haritschelhar*, euskaltzainburua / Presidente / Président  
*Henrike Knörr*, buruordea / Vicepresidente / Vice-président  
*Patxi Goenaga*, idazkaria / Secretario / Secrétaire  
*Jose Antonio Arana Martija*, diruzaina / Tesorero / Trésorier

## ORDEZKARIAK / DELEGADOS / DÉLÉGUÉS

Gipuzkoa / Guipúzcoa / Guipuzcoa: *Juan Mari Lekuona*  
Araba / Álava / Alava: *Patxi Goenaga*  
Nafarroa / Navarra / Navarre: *Andres Iñigo*  
Iparraldea / País Vasco Continental / Pays Basque Nord: *Pierre Charritton*

## ERAGILEAK / GESTORES / RESPONSABLES

*Jose Luis Lizundia*, idazkariorde-kudeatzailea / Vicesecretario-gerente / Secrétaire adjoint  
et gérant  
*Juan Jose Zearreta*, ekonomi eragilea / Gestor económico / Responsable économique  
*Prudentzio Gartzia*, Azkue Bibliotekako zuzendaria / Director de la Biblioteca Azkue / Di-  
recteur de la Bibliothèque Azkue  
*Ricardo Badiola Uriarte*, argitalpen eragilea / Gestor de publicaciones / Responsable des  
publications  
*Pello Telleria*, eragile teknikaria / Gestor técnico / Responsable technique

## **VI.2. BATZORDEEN ZERRENDAK / COMISIONES ACADÉMICAS / COMMISSIONS DE TRAVAIL D'EUSKALTZAINDIA (\*)**

### ***IKER SAILA / SECCIÓN DE INVESTIGACIÓN / SECTION RECHERCHE***

*Iker* sailburua / Director / Directeur: Beñat Oihartzabal

### **I. HIZTEGIGINTZA batzordea / Comisión de LEXICOGRAFÍA / Commission DICTIONNAIRE**

Burua / Presidente / Président: Ibon Sarasola

Batzorde hau bi azpibatordetan banatzen da / Esta comisión se divide en dos subcomisiones / Cette commission se divise en deux sous-commissions:

#### **I.1. Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH) lantaldea / Equipo de trabajo del *Diccionario General Vasco* (OEH) / Groupe de travail du *Dictionnaire Général de la langue basque***

*Arduraduna / Responsable / Responsable:* Iñaki Segurola

*Kideak / Miembros / Membres:* Arantza Egia, Ainara Estarrona, Gabriel Fraile, Elizabet Kruzeta, Ane Loidi, Amaia Olabarria, Ainhoa Otamendi.

#### **I.2. Hiztegi Batuko lantaldea / Equipo de trabajo del Vocabulario Unificado / Groupe de travail du *Dictionnaire de la Langue Unifiée***

*Arduraduna / Responsable / Responsable:* Jose Antonio Adúriz

*Kideak / Miembros / Membres:* Luis Baraiazarra, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Koro Navarro, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia.

### **II. GRAMATIKA batzordea / Comisión de GRAMÁTICA / Commission GRAMMAIRE**

*Burua / Presidente / Président:* Patxi Altuna

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Jesus Mari Makatzaga

*Kideak / Miembros / Membres:* Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose Mari Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Patxi Ondarra, Karmele Rotaetxe, Pello Salaburu.

---

(\*) Izendapen hauek 1999 eta 2000rako dira / Estos nombramientos son para el bienio 1999-2000 / Ces nominations concernent les années 1999 et 2000.

### **III. DIALEKTOLOGIA batzordea / Comisión de DIALECTOLOGÍA / Commission DIALECTOLOGIE**

*Burua / Presidente / Président:* Beñat Oihartzabal

#### **Atlasgintza lantaldea / Equipo de trabajo del Atlas Lingüístico / Groupe de travail de l'Atlas linguistique**

*Arduradunak / Responsables / Responsables:* Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain

*Kideak / Miembros / Membres:* Isaak Atutxa, Iñaki Camino, Ana Maria Etxaide, Jose M. Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Juan Antonio Letamendia, Koro Seguro.

### **IV. ONOMASTIKA batzordea / Comisión de ONOMÁSTICA / Commission ONOMASTIQUE**

*Burua / Presidente / Président:* Henrike Knörr

*Idazkari / Secretario / Secrétaire:* Mikel Gorrotxategi

*Kideak / Miembros / Membres:* Andres Iñigo, Jose Luis Lizundia, Jean-Baptiste Orpustan, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Zaratiegi, Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi.

#### **Exonomastika / Exonomástica / Exonomastique**

Gidor Bilbao, Andolin Eguzkitza, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana.

#### **Aholkulariak / Asesores / Conseillers**

Patxi Galé, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Roldan Jimeno Aranguren, Jose Maria Jimeno Jurío, Jose Luis Ormaetxea, Eugenio Riaño, Manuel Maria Ruiz Urrestarazu, Patxi Uribarren, Amaia Usabiaga.

### **V. LITERATURA batzordea / Comisión de LITERATURA / Commission LITTÉRATURE**

*Burua / Presidente / Président:* Juan Mari Lekuona

#### **V.1. Herri Literatura azpibatzerdea / Subcomisión de Literatura Popular / Sous-commission Littérature populaire**

*Arduraduna / Responsable / Responsable:* Juan Mari Lekuona

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Pello Esnal

*Kideak / Miembros / Membres:* Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Xabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

#### **V.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea / Subcomisión de Investigación Literaria / Sous-commission Recherche littéraire**

*Arduraduna / Responsable / Responsable:* Juan Mari Lekuona

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Karlos Otegi

*Kideak / Miembros / Membres:* Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Luis Mari Mujika, Maria Jose Olaziregi, Lourdes Otaegi, Txomin Peillen, Patxi Salaberri Muñoa, Ana Toledo, Patri Urkizu.



**VI. EUSKARA BATUKO batzordea / Comisión de EUSKARA UNIFICADO / Commission BASQUE UNIFIÉ**

*Burua / Presidente / Président:* Pello Salaburu

*Idazkaria / Secretaria / Secrétaire:* Miren Azkarate

*Kideak / Miembros / Membres:* Patxi Altuna, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola.

**VII. JAGON SAILA / SECCIÓN TUTELAR / SECTION PROMOTION**

**VII.1. Corpus batzordea / Comisión del Corpus / Commission Corpus**

*Burua / Presidenta / Président:* Miren Azkarate

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Joxe Ramon Zubimendi

*Kideak / Miembros / Membres:* Dionisio Amundarain, Joseba Butron, Pello Esnal, Igone Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Patxi Iñigo, Xabier Mendiguren, Paskual Rekalde.

**VII.2. Sustapen batzordea / Comisión de Promoción / Commission Promotion**

*Burua / Presidente / Président:* Andres Urrutia

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Gotzon Lobera

*Kideak / Miembros / Membres:* Erramun Baxok, Pierre Charritton, Patxi Goenaga, Andres Iñigo, Henrike Knörr, Juan Mari Lekuona, Juan San Martin.

\* \* \*

**EGITURAZKO BATZORDEAK / COMISIONES ESTRUCTURALES / COMMISSIONS STRUCTURELLES**

**VIII. ARGITALPEN batzordea / Comisión de PUBLICACIONES / Commission PUBLICATIONS**

*Burua / Presidente / Président:* Jean Haritschelhar

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Ricardo Badiola Uriarte

*Kideak / Miembros / Membres:* Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Jose Antonio Arana Martija, Beñat Oihartzabal, Miren Azkarate, Patxi Altuna.

**IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea / Comisión BIBLIOTECA AZKUE / Commission BIBLIOTHÈQUE AZKUE**

*Burua / Presidente / Président:* Jose Antonio Arana Martija

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Prudentzio Gartzia

*Kideak / Miembros / Membres:* Kepa Altonaga, Gidor Bilbao, Jose Mari Larrarte, Juan San Martin.

**Aholkulariak / Asesores / Conseillers**

Joseba Agirreazkuenaga, Andolin Eguzkitza, Jose Maria Jimeno Jurio, Henrike Knörr.

**X. LEGE-EKONOMIA batzordea / Comisión ECONÓMICO-JURÍDICA / Commission ÉCONOMICO-JURIDIQUE**

**X.1. Lege azpibatzerdea / Subcomisión jurídica / Sous-commission juridique:**

*Burua / Presidente / Président:* Andres Urrutia

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Jose Luis Lizundia

*Kideak / Miembros / Membres:* Jon Artatxo, Jon Castañares, Abel Muniategi, Patxi Zabaleta.

**X.2. Ekonomia azpibatzerdea / Subcomisión económica / Sous-commission économique:**

*Burua / Presidente / Président:* Jose Antonio Arana Martija

*Idazkaria / Secretario / Secrétaire:* Juan Jose Zearreta


*Kideak / Miembros / Membres:* Xabier Erdozia, Sebastian Garcia Trujillo, Juan Luis Laskurain, Jose M. Makua Goienetxe.

**VI.3. EUSKALTZAINDIAREN ORGANIGRAMA /**

**ORGANIGRAMA DE EUSKALTZAINDIA /**

**ORGANIGRAMME D'EUSKALTZAINDIA**

# E U S K A L T Z



# Z A I N D I A

NI  
RE

D /  
DIRECTION

NT  
E / SECRÉTAIRE ADJOINT GÉRANT  
1

SAILBURUAK / DIRECTORES DE SECCIÓN / DIRECTEURS DE SECTION

EKONOMI ERAGILEA /  
GESTOR ECONÓMICO /  
RESPONSABLE ÉCONOMIQUE  
1

ERAGILE TEKNIKARIA / GESTOR TÉCNICO / RESPONSABLE TECHNIQUE

A /  
NE  
S /  
ONS  
ATI  
1

BATZORDEAK / COMISIONES / COMMISSIONS

HIZTEGIA /  
DICCIONARIO /  
DICTIONNAIRE

HIZKUNTZ ATLASA /  
ATLAS LINGÜÍSTICO /  
ATLAS LINGUISTIQUE

BESTE BATZORDEAK /  
OTRAS COMISIONES /  
AUTRES COMMISSIONS

ZUZENDARIA /  
DIRECTOR /  
DIRECTEUR  
1

ZUZENDARI TEKNIKOAK /  
DIRECTORES TÉCNICOS /  
DIRECTEUR TECHNIQUE  
2

TEKNIKARIAK /  
TÉCNICOS /  
TECHNICIENS  
8

TEKNIKARIAK /  
TÉCNICOS /  
TECHNICIENS  
2

TEKNIKARIAK /  
TÉCNICOS /  
TECHNICIENS  
3

DI  
D  
E L  
RADUNA /  
E VENTAS /  
E VENTES  
1

ADMINISTRARIA /  
ADMINISTRATIVA  
1

GARBITZAILEA /  
LIMPIADORA /  
FEMME DE MÉNAGE  
1



## **VI.4. BULEGOEN HELBIDEAK / DIRECTORIO / RÉPERTOIRE**

### **EGOITZA / SEDE / SIÈGE**

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Telf.: 94-415 81 55

Faxa / Fax: 94-415 81 44

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: [info@euskaltzaindia.net](mailto:info@euskaltzaindia.net)

[Http://www.euskaltzaindia.net](http://www.euskaltzaindia.net)

Arduraduna / Responsable / Responsable: Jose Luis Lizundia

### **AZKUE BIBLIOTEKA / BIBLIOTECA AZKUE / BIBLIOTHÈQUE AZKUE**

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Telf.: 94-415 27 45

Faxa / Fax: 94-415 00 51

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: [azkuebib@euskaltzaindia.net](mailto:azkuebib@euskaltzaindia.net)

Zuzendaria / Director / Directeur: Pruden Gartzia

### **GORDAILUA / ALMACÉN / DÉPÔT**

Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km

SAGA etxea, 1. solairua

48450 ETXEBARRI (Bizkaia)

Telf.: 94-440 62 58

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: [jartza@euskaltzaindia.net](mailto:jartza@euskaltzaindia.net)

Arduraduna / Responsable / Responsable: Jon Artza

## **ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES / DÉLÉGATIONS**

### **ARABA / ÁLAVA / ALAVA**

San Antonio, 41

01005 VITORIA / GASTEIZ

Telf.: 945-23 36 48

Faxa / Fax: 945-23 39 40

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: [gasteizordez@euskaltzaindia.net](mailto:gasteizordez@euskaltzaindia.net)

Ordezkarria / Delegado / Délégué: Patxi Goenaga

### **GIPUZKOA / GUIPÚZCOA / GUIPUZCOA**

Hernani, 15

20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

Telf.: 943-42 80 50

Faxa / Fax: 943- 42 83 65

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: [donostiaordez@euskaltzaindia.net](mailto:donostiaordez@euskaltzaindia.net)

Ordezkarria / Delegado / Délégué: Juan Mari Lekuona

*NAFARROA / NAVARRA / NAVARRE*

Conde Oliveto, 2, 2

31002 IRUÑEA / PAMPLONA

Telf.: 948-22 34 71

Faxa / Fax: 948-21 07 13

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: [nafordez@euskaltzaindia.net](mailto:nafordez@euskaltzaindia.net)

Ordezkarria / Delegado / Délégué: Andres Iñigo

*IPARRALDEA / PAIS VASCO CONTINENTAL / PAYS BASQUE NORD*

Thiers, 18, 1

64100 BAIONA

Telf.: 0033(0)-559 25 64 26

Faxa / Fax: 0033(0)-559 59 45 59

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: [baionaordez@euskaltzaindia.net](mailto:baionaordez@euskaltzaindia.net)

Ordezkarria / Delegado / Délégué: Pierre Charritton







